# ttipi-ttapa

**199.** zenbakia • 1997ko otsailak 13 • **XVI.** urtea




# Herrietako diru-sarreren zati haundi bat ustelduta galtzen da

*Bertzalde, zazpi edo zortzi urteren buruan pinadi gehientsuenak akituak izanen ditugu*

Mendi aunitz duten herrietan, oihana aberastasun eta diru-iturri garrantzitsua izana da. Gaur egun, ordea, dexente gehiago da mendian usteltzen den egurra aprobetxatzen denarekin konparatzen baldin badugu. Nafarroako oihanetan pagoa nagusi bada ere, inguruotan pinua gailendu zen. Gerora, 7 edo 8 urteren buruan, mendi-ateratzeetan 15 urte luze iraunen duen geldialdia gertatuko omen da, duela 50-60 urte sartutako pinuak nahitaez bota beharko baitira. ☞ 4


**6** Iritzia: **TTIPI TXARTELA:**
Espektatiba haundiak sortu ditu bazter guzietan. Horra adibide gisa merkatari, erosle eta txartel-saltzailearen ikuspegiak.

**27** Kultura: **Bidasoako Ikerketa Zentrua**
Ortziralean aurkeztu zen ofizialki Baztan-Bidasoako historia, geografia, soziologia eta antropologiaren iragana eta oraina ikertuko duen elkartea.

**28** Kirolizketa: **Iñaki Otxandorena** Oronozko pilotaria Californiara.









Juanjo OTXANDORENA

## Saldiasko alkatea

Herriko Etxean dituzten proiektuen berri eman digu Juanjok. Bestalde, nekazaritza *«gero eta okerrago»* ikusten du, eta *«Lesakako fabrika ez daki inork nora joko duen»*. Halere, ez du lan falta haundirik ikusten: *«nahi izanez gero, lana badago»*. ☞ 3

# ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA

®SILOTITE BONTITE

- Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- Koloreak: xuria, marroia, berdea eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- 9 urteko esperientzia
- Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hoberena

*Plastiko luzagarria belarra bolatan sartzeko*

**Ez zaitzatela ziririk sartu imitazioren batekin**

**Kontutan hartu zenbat belar kilo arriskatzen dituzun**

Zilo bolak noiz egin behar diren, zenbat buelta eman, plastikoa ongi tinkatzeko nola egin, non eta zein posturatan pilatu behar diren bolak, zein zabalerako plastikoa den hoberena (500 mm. edo 750 mm.) eta bertze edozein duda izanez gero, **eskatu informazioa. Denok ikasiko dugu zerbait gehiago!!**









**Eskariak berehala atenditzen ditugu**
**Galdetu prezioak konpromisorik gabe**

**AROZ - BERRI, S.A.**
NEKAZAL TRESNERIA
N-121-B errepidea, 54. km.a • ✆ **581021-580258** • Faxa 452103 • 31730 **IRURITA**



DATUAK..........

❖ *Juanjo Otxandorena Saldiasko Joaneabordako semea da.*

❖ *Orain 24 urte sortua, eskualdeko alkaterik gazteena da.*

❖ *1995eko maiatzeko hauteskundeetan aukeratu zuten alkate, EAko zerrendaburu bezala.*

❖ *Herrian, 165 biztanleetatik erdaldun bakarra ezagutzen du, eta ez du inolako arazorik ikusten Saldias UEMAko kide izateko.*

❖ *Herri txikia izan arren, Malerrekako Mankomunidadean eragina izaten saiatzen da: «gehienak herri txikiak gara eta horretarako egin zen Mankomunidadea» dio.*

TESTUA:
**AITOR AROZENA**
ARGAZKIA:
**KARMELE TOLOSA**

☞ **Juanjo OTXANDORENA** *Saldiasko alkatea*

# "UEMAn sartzen ahal gara, ez baitugu arazorik euskaraz funtzionatzeko"



«Denek alkatea esaten dute, baina beste lau zinegotzi ere lanean ari dira»

**HAIN GAZTEA IZANIK, NOLA GOGORATU ZITZAIZUN ALKATEGAI BEZALA AURKEZTEA?**

Herrirako zenbait lan egiteko asmoa genuen. Frontoia kasik argirik gabe dago eta hor argiak jarri, pista batzuk egin eta zabaldu,errotako bidea konpondu ondotik errota berritu, Herriko Etxea moldatzeko asmoa dago... gurea bezalako herri ttikietan izaten diren arazoak. Saldiasera ura ekarri genuen, tuberia berria eginez...

**ZEIN IZATEN DIRA SALDIASEN URTEKO GASTU ETA DIRU SARRERA INPORTANTEENAK?**

Joan den urtean, uraren obra egiten 24 milioi gastatu genituen, gero bestak beste milioi erdi bat, pistak milioi erdi... Gauza bat eta beste, dirua joaten da. Sarreretan berriz, gehien bat subentzioetatik ailegatzen dena, mendirik ez daukagu eta hortik arrunt gutxi. Halere, udalera ailegatu ginenean ez zegoen zorrik eta orain ere ez.

**ZU ZEONE LANGABEZIAN ZAUDE. NOLA IKUSTEN DUZU LANAREN EGOERA HERRIAN ETA ERREKA HONETAN?**

Langabezian egon arren, orain lagun bateri pixko bat laguntzen diot. Nekazaritza gero eta okerrago dago eta Lesakako fabrika ez daki inork nora joko duen, zein intentzio dituzten haundi horiek. Baina, nire ustez, langabezi haundirik ez dago hemen. Harrapatu nahi izanez gero lana badago.

**UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAN (UEMA) SARTZEKO ASMOA ERE BA OMEN DUZUE. NOLAKOA DA EUSKARAREN EGOERA SALDIASEN?**

Malerrekako euskara teknikariarekin komentatu nuen gai hori. Orain Herriko Etxeko idazkaritza moldatu beharra dugu eta hori bukatzearekin, erabakiko dugu. UEMAn sartzeko proposamena begi onez ikusia dago udalean. Saldias herri euskalduna da, 165 bat lagun izanen gara eta erdaldun bakarra ezagutzen dut eta hark familia euskalduna du. Idazkariak orain arte erdaraz egin ditu idatzi guziak, baina bera euskalduna da eta euskara ikastaroetan ibilia da. Ez genuke inolako arazorik izanen euskaraz funtzionatzeko.

**LAISTER BI URTE BETEKO DITUZU ALKATE BEZALA. ZER BALANTZE EGITEN DUZU?**

Denek alkatea esaten dute, baina alkatearekin batera lau zinegotzi ari dira lanean. Nik uste balantze ona egin daitekeela.

> *"Nekazaritza gero eta okerrago dago, Lesakako fabrika ez daki inork nora joko duen, baina nire ustez langabezi haundirik ez dago hemen. Nahi izanez gero lana badago."*



Joan den urteko otsailean haizeak botatako zuhaitz ugarietako bat ageri zaigu argazkian. Arbola hoiek usteldu aintzinetik probextu behar izan ziren, eta horrek diru dexente ekarri zuen.

# Etekin gehiago ateratzen ahal zaio mendiari

***Oihan-politika egokiak oreka bat bilatu behar du, giza kontsumorako ateratzen den egurra eta basoaren berezko izaeraren artean. Hau da, alde batetik ohianak ematen dituen aberastasunak ahalik eta hobekien probextu (gaur egun probexten dena baino gehiago usteltzen da mendian) eta bertzetik ekologikoki mendiari kalterik ttikiena egiten dion politika bilatu behar da. Honen harian, ikerketa bat landu du Nafarroako Gobernuak, ohianen inguruko aktibitate industrialetan aritzen direnei zenbait argibide emanez.***

TESTUA:
*ASIER GOGORZA*
ARGAZKIAK:
*FORESNA/ZURGAIA*

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Departamentuak egin berri duen ikerketa baten arabera, oihan-probetxamenduetatik 1.100 milioi pezetatik goiti ateriko dira 1997an. Nafarroa osoko baso-probetxamenduek 148.359 m³ko bolumena dutela estimatzen da ikerketa horretan, espezie guzitako arbolen artean. Mendien ustiapenen inguruko bertze zenbait datu ere argitaratu dira txosten berean, subastak non eta noiz izanen diren, salneurriak... Egurra ateratzen aritzen diren enpresariei oihan-probetxamenduen bolumen zehatzak jakinaraztea da informazio guzi honen helburua, hauek beren urteko aktibitate industriala hobeki egituratzeko.

### Herriendako diru iturri

Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Leitzaldeko udalek 143 milioi pezeta inguru bildu zuten 1995ean, hau da, udal hoiek dituzten diru sarrera osoen zati garrantzisu bat. Erran behar da zenbaki hauek nahiko aldakorrak direla. Iaz, erraterako, otsaileko haize ufadek zuhaitz andana bota zuten, eta lurrean gelditu zen egur guzi hori ateri eta saltzea erabaki zen, usteltzeko arriskua

ikusita. Goizueta da eskualdean menditik diru gehien biltzen duen herria, oihan probetxamenduei dagokienean behinpen.
Nafarroako oihanetan pagoa nagusi bada ere, inguruotan pinua aspaldi gailendu zitzaion, abudoago hazten (eta beraz, saltzen) den arbola izaki. Adituek diotenez, pinu ateratzeak ez du beti orain ematen duen etekin berbera emanen, eta hemendik 7 edo 8 urtera, mendi-ateratzeetan 15 urte luze iraun dezakeen geldialdi bat gertatuko omen da. Duela 50-60 urte landatutako arbolak heldutasunera iristen ari direla-eta, epe laburrean hoiek moztu beharra dago nahitaez.

**Etekinak bai, baino...**

Gaur egun, mende honen erdialdera baino puskaz probetxu guttiago ateratzen zaio mendiari, eman diren ustiapen politika okerren erruz. Hemengo pagoaren prezioa, adibidez, Nafarroako bertze zonatakoaren erdian kokatzen da (Leitzaldea eta Baztanen daude eskualdeko pagadi gehienak, Malerrekan guttixeago). Gainera, egurraren elaborazioan aritzen diren bertako fabrikek kanpotik ekarritako egurra erosi ohi dute hemengoaz aparte.
Mendian usteltzen diren arbolak ere kontutan hartu behar ditugu. Onddoek eta zomorroek kontsumitzen duten egur kopurua, industriarako edo erregai bezala kontsumitzen dugunaren bikoitza da gaur egun. Azken hogei urteetan Nafarroako basoetako egur kopurua %25ean haunditu egin da, baina mendietan usteltzen den bertan ere hagitzez gehiago da, eskuineko grafikoan ikusten ahal den moduan. Usteltzen diren arbolek, ingurugiroarentzat kaltegarria den $CO_2$ kantitate haundiak ixurtzen dituzte, Nafarroa osoan kontsumitzen den gasoleoak haina, pentsa...

## MENDIA - DATU OROKORRAK

### OIHANETATIK BILDUTAKO DIRUAK

| | Milioiak | Diru-sarreren |
|---|---|---|
| ARANTZA-IGANTZI[1] | 3,3 | %3,7 |
| ARANO[1] | 2,7 | %6 |
| BAZTAN[1] | 15,3 | %2,4 |
| BEINTZA-LABAIEN[1] | 1,6 | %7,2 |
| BERA[1] | 33,7 | %8,6 |
| BERROARAN[2][3] | 16,2 | |
| ETXALAR[2] | 19,5 | %7,4 |
| GOIZUETA[1] | 30,9 | %29,7 |
| ITUREN[1] | 2,5 | %4 |
| LEITZA[2] | 6,6 | %4 |
| LESAKA[1] | 3,3 | %7,9 |
| OITZ[1] | 0,49 | %1,5 |
| URROTZ[1] | 3 | %6,8 |
| ZUBIETA[1] | 4 | %6,6 |
| Denetara | 143 | |

Datu Iturria: UDALAK

**Oharrak:** [1] 1995eko datuak
[2] 1996ko datuak
[3] Doneztebe, Elgorriaga, Narbarte eta Sunbillak osatzen dute Junta.

### PROBEXTU eta USTELTZEN DEN EGURRA




Datu Iturria: FORESNA-ZURGAIA

### OIHANEK SORTZEN DITUZTEN ENPLEGUAK

| LANBIDEA | FRANTZIAN | NAFARROAN |
|---|---|---|
| Oihangintza | 23.100 | 420 |
| Zerrategiak | 83.800 | 1.172 |
| Moblegintza | 81.400 | 1.095 |
| Kartoi eta papergintza | 99.100 | 2.532 |
| Denetara | 287.400 | 5.219 |
| Enplegatu guzietatik | %1,5 | %2,9 |
| Industria eta nekazaritza enpleguetatik | %6 | %7,6 |

Datu Iturria: FORESNA-ZURGAIA

**Baso-politika**

Afera honetan Nafarroako Gobernuak segitu duen baso-politika bi zatitan banatzen da: batetik, 13/1990 foru legeak oihan-ondasunen babes eta garapena arautzen du, eta bertzetik legeak agintzen duena betetzen dela segurtatzeko «Plan Forestal» delakoa martxan paratu dute. Plan Forestalaren barrenean lurraldearen planifikazio egokia egitea eta dauden materiale nahiz giza errekurtsoak antolatzea aurrikusten da.
Baso politika honek, ekoizten den egurraren kalitatea hobetzea, urteen buruan mendi ateratzeetan gorabehera nabarmenik ez egotea eta basoarentzat ekologikoki mesedegarria den ustiapena bultzatzea du helburutzat. Politika hori segituz, espezie guzietako arbolak landatuko dira, horrela plaga bat edo bertzelako ezustekorik suertatzen bada,



**Enborrak ateratzeko sistema desberdinak daude. Argazkian ikusten duguna kable bidezkoa da eta horixe da azken garaietan nagusitu den sistema.**

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es
**e-mail:**
ttipi@mail.sendanet.es

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...
**Inprimategia:** Graficas Ona.
***ttipi-ttapa*k** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

GAURKOTASUNEKO GAIA

# Ttipi Txartela

## Ordaindutakoa eta gehiago erosketen bidez berreskuratzea espero dut



Margari ETXENIKE
Zugarramurdi. Eroslea

Ttipi Txartelaren ideia arras ongi iduritzen zait, alde batetik TTIPI-TTAPArendako laguntza bat delakoz. Bertzetik, txartela erosi dugunok, bertako dendetan erosiz, diru hori eta gehiago berreskuratzeko aukera daukagu. Dendentzat ere ongi etorriko da, jende gehiago ganen zaielakoz. Beraz, nik uste denendako primeran dagoela! Egia erran nik Iparraldean egiten dut erosketen zatirik haundiena, baina Elizondorat-eta gaten garelarik, probetxua aterako diot, noski. Batez ere arropa erosterakoan erabiliko dut eta Fantxike eta Ipingi bezalako dendetan deskontuak eginen dituztela ikusi dut. Kasu horietan ez duzu izugarri ahorratuko, baina tailerretan edo elektrogailu-dendetan eta, diru kopuru haundiko erosketak diren kasuetan abantaila haundia da. Zaila da juxtuan frigorifiko edo telebista bat erosi behar izana, baina tokatzen ahal da. Ordaindu ditudan 5.000 pezetak eta gehiago berreskuratzea espero dut, toki ezberdinetan erosketak eginez.

## Txartela TTIPI-TTAPA laguntzeko modu bat bezala ikusten du jendeak



Ainhoa ARBURUA
Etxalar. Saltzailea.

Etxe batera ttipi txartela saltzera joaten zarenean, lehendabiziko sorpresaz hartzen dute: zerbait aditu dute baina ez dakite ongi zer den. Gero, jende gehienak TTIPI-TTAPA laguntzeko modu bat bezala ikusten du. Hainbat urtez debalde ailegatu zaio aldizkaria etxera eta ttipi-txartela erosiz nolabait lagundu nahi du, gustora gainera. Nik uste %90ak pentsamendu horrekin erosten duela. Eskualdean egin nahi den telebista berri bati laguntzeko ere baliagarria izanen dela aipatzerakoan harrituak gelditzen dira: Bertako dendetan erosteari eta promozioei ez diote horrenbertze begiratzen. Normalean erosketa haundiak egiterakoan hirietara joaten dira, «Irun bertan dugu eta» erraten didate eta zaila da mentalidade hori aldatzea. Baina konturatzen dira, eraberean, hainbat abantaila izanen dituztela eskualdeko dendetan txartela erabiltzen badute. Deskontuak eskaintzen dituzten denden lista aunitzek eskatzen dute eta txartela esku artean dutenean, baliagarritasuna bilatuko diotela pentsatzen dut.

## Denok elkar laguntzeko modu polita da txartela erabiltzea



Maite ZOZAIA
Doneztebeko Txirristakoa

Hemengo denda ttikietara jendea erakartzeko baliagarria izaten ahal da, herrian bertan gelditzeko. Erosketak egiteko kanpora joateko ohitura haundia dugu, batez ere aukera gehiago dagoelakoz. Seguraski prezioen aldetik ez da alde haundirik izanen, baina kanpora errex mugitzen gara. Pena da, hemen komertzio guzietan aukera politak ditugulako. Zentzu horretan, ttipi txartela elkar laguntzeko modu polita da. Deskontu ttiki batzuekin jendea laguntzen eta animatzen badugu, hauek bertan erostea lortu daiteke. Guk hamabi urte bitarteko haurren arropa eta osagarriak saltzen ditugu eta ttipi txartelarekin produktu guzien gain %10eko deskontua eginen dugu urte osoan, merkealdi garaian ezik. Sektore honetan ere, jendea ekonomatoetara joan ohi da eta han aisago erosten du. Denak kanpoko ofertak begiratzen ditugu, baina herrietan ere produktu onak ditugu eta prezioak ez daude hain gaizki. Arropen kasuan, normalean, kanpoko prezio berdintsuak izaten ditugu herritik mugitu gabe.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

IRAKURLEAK MINTZO

**Sunbildar baten agurra Californiatik**

Nere izena Juan Ibarra da. Ni sunbildarra naiz eta hemen nago Californiako Bakersfield-en. Nere arrebak bidali dit Ttipi-ttapa eta hortxe ikusi dut zuen interneteko direkzionia. Nere arreba Maria Angeles Ibarra da eta bere senarra Angel Irazoki, Lesakan bizi dire. Zuen rebista hau oso maite dut eta orain gusto haundia hartzen dut interneten irakurtzen ahal baitut. Zorionak euskaldun guzieri eta goraintzik Sunbildarrei. Muxu haundi bat nere familia guziari. Agur eta bertze bat arte.

JUAN IBARRA
BAKERSFIELD (CALIFORNIA)
E-MAIL: VASCO1@AOL.COM

**Gazte-mugimendua institutuetan**

Hemen sortu dugu talde abertzale berri bat egunero aurkitzen dugun problematikari aurre egiteko asmoz. Arazoek Euskal Herriko karrikak bete dituzte. Dagozkigun eskubideak eta askatasuna moztu eta gero, izaera ere kendu nahi digute. Manipulazioa, errepresioa, indarkeria zabaltzen ari dira etengabe. Baina institutu barruko arazoak, ikusten ez diren arren, ez dira makalak. Gazte mugimenduaz ari gatzaizkizue; aspaldi honetan, pasibotasun kezkagarria somatzen dugu institutuetan eta –aunitzek bertzerik pentsatu arren– inguruko herrietan ere. Pasotismoa erabat zabaldu da gazteen artean. Baina, ezin ukatuzkoa da politikan oinarrituko gizartean jaio garela eta erabakiak beharrezkoak ditugula.

Euskal Herriko arazoetan bermaturik, ikasleei informazioa helaraztea da gure helburua, pentsaraztea eta jokatzen erakustea.

Bertzerik gabe, inguruko institutuak talde berri bat sortzeko animatzen ditugu. Ea denon artean manipulazioa eta jarrera faxistak gainditzea lortzen dugun. Eutsi goiari!

LEKAROZKO IKASLEEN BATZORDEA

**Ikurriña geurea**

Jadanik badira 20 urte, 1997ko urtarrilaren 17an, ikurriña legalizatua izan zenetik, eta euskal ikurraren urteurrena Leitzako Torrean dagoen ikurriñari "ezezagun" batzuk su emanez ospatu nahi izan zuten.

Halaber, gogoan eduki beharrean ditugu orain gutxi Leitzan, Lekunberrin eta Betelun Amnistiaren Aldeko Batzordeak jarritako olentzeroek jasan dituzten erreketa. Baina ez dira hauek Nafarroan gertatutako eraso bakarrak, eta gerra zikinaren berpizte berriaren aurrean ez ote gauden ziurtasuna begi-bistakoa da.

Aipatu erasoak, eskuarki, ez dira kasualitatez gertatzen eta badu zerikusirik guzti honekin azken aldian Nafarroako eskuin muturrak, UPN-PP eta UIL Leitzan, euskalduntasun modu desberdinen kontra egiten ari diren deklarazioak, etab...

Gertakizunak gertakizun, gauza guzti hauek indarraren bidez inposatutako status baten eta demokrazia ezaren adierazle garbiak ditugu.

Bitartean, eskuak gurutzatu gabe mobiliza gaitez eraso hauek aurrerago joan ez daitezen.

LEITZATIK 29.148.942

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea.*
*Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*




**Bidali** TTIPI-TTAPA
**herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.

✆ 631188

KOLABORAZIOAK

Gloria AGERRI *Berako zinegotzia*

# Udal-aurrekontuak. Eta aurten zer?



Nafarroako Gobernuak 1997rako landu dituen aurrekontuek ez dute segurtatzen herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak eskeintzen segitu ahal izanen dugunik, Herri Entitateen ikuspuntutik bederen. Udaletxeekiko sentikortasun falta nabarmena erakusten duten aurrekontu murriztaileak dira hauek, gehienetan Gobernutik bertatik sortutako kargekin. Subentzio-politikak, hiru urteko epe batekoak, edota urtetik urtera bere hortan gelditzen diren subentzioak jasotzen ditu, udaletxeek eskeintzen dituen zerbitzuek gora egiten duten bitartean (Musika eskola, Kultura,Ongizate Soziala, Kirolak, Gazteria...). Guzi hauek, herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak dira, eta udaletxeek beren kontura ordaindu behar izaten dituztenak. Bitartean, herri inbertsiotarako laguntzak eta subentzioak, aurrez definituriko helburu edo irizpiderik gabe banatzen dira. Egoera hau FNMCk salatu egin du berriki.

**Nafarroako Gobernuak 1997rako landu dituen aurrekontuek ez dute segurtatzen herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak eskeintzen segitu ahal izanen dugunik, Herri Entitateen ikuspuntutik bederen. Udaletxeekiko sentikortasun falta nabarmena erakusten duten aurrekontu murriztaileak dira hauek, gehienetan Gobernutik bertatik sortutako kargekin.**

Udalentzat Nafarroako Herri Administrazioaren Foru Legearen arabera derrigorrezkoa dena, ez da hala Gobernuarentzat. Lege aurreproiektuen Herri Erregimenen Foru Komisioaren informea, adibidez, 1997ko aurrekontuetatik kanpo gelditu da. Komisio honek Nafarroako Herri Entitate guziak ordezkatzen dituela erran behar da.
Nafarroako Gobernuaren aurrekontuek, Gobernuaren beraren eta Nafarroako PSOEren (paktuaren sinatzaileak) eritzi esklusiboa izan beharrean, herritar guziena izan beharko luke. Herritar hauek Herri Entitateetan birbanatze solidario eta zuzena ikusi nahi dute, urtean zehar zergak ordaintzeko egiten dituzten esfortzuen truke bertzerik ez bada ere. Blokean joaki direnak eta bere kontura doazenak horretaz ohartzea nahiko nuke. Kontua ez baita Nafarroarentzako aurrekontuak onartzea , ezta Osotasunemendakina aurkeztea ere. Horrek ez du bermatzen benetako erantzunkizun edo ardurarik.

Paula KASARES *Baztango Euskara Teknikaria*

# Lanpostuetarako euskara frogak



Euskara teknikariak garenez gero, erakunde publiko ezberdinek (Udalek, Nafarroako Gobernuak, INEMek...) lanpostuak ateratzen dituztenean, euskara frogak egiteko eta zuzentzeko deitu ohi digute. Froga horietan somatu eta ikusi ditugun hainbat gertaera eta jokaera hagitz kezkagarriak iduritzen zaizkigu:

UTZIKERIA

Azterketa egiten dutenek oro har hagitz euskara maila baxua izan ohi dute. Are gehiago, hagitz jende gutxik dauka euskaraz mintzatu eta idazteko behar den gutxieneko gaitasuna.
Euskara frogak egitera mota guzietako jendea etortzen da: euskaldun alfabetatuak, alfabetatu gabeak eta erdaldunak. Utzikeria denengan somatzen dugu. Euskaldun alfabetatuengan (ikasketak euskaraz egin dituztenak barne) aunitzetan somatzen dugu euskaraz ikasi zutela baina geroztik, alde batera utzi duten kontua dela. Bertze multzoan euskaldun alfabetatu gabeak (sekula santan euskaraz idatzi ez dutenak) eta erdaldunak (euskaraz solasten ere ez dakitenak) daude eta hauek ere etortzen zaizkigu euskara frogetara. Benetan espero al dute euskara froga gainditzea? Hauen aldetik utzikeriaz gain, lotsagabekeria nagusi.

SERIOTASUNIK EZA

Lanpostuetarako egiten diren gainerako froga guztiak erdaraz izaten dira. Horietan inork ez luke onartuko akats ortografiko, sintaktiko edota gramatikalak egin dituztenei azterketa gainditzea. Beraz, zergatik onartu behar ditugu gisa honetako akatsak euskarazko frogetan?

**Azterketa egitera etortzen direnek euskara froga bigarren mailako kontua balitz bezala hartzen dute, hau da, euskara froga nolanahi eginda ere gainditzen ahal dela uste dute.**

Aunitzetan erran izan digute euskara froga zailegiak egiten ditugula. Gure aldetik, argitu nahi dugu egiten ditugun frogetarako lanpostu horretan egin beharreko lanak oinarri gisa hartzen ditugula, hau da, frogak erabat «errealak» dira.
Gai honek seriotasuna eskatzen du. Hau da, horrelako frogak egiterakoan pentsatu behar dugu azterketa gainditu behar duen jendea gai izanen dela eskuratuko duen lanpostuan euskaraz aritzeko (ahoz zein idatziz). Gainera, lanpostu hauek publikoak izaten dira. Beraz, herritarrek administraziora jotzen dutenean euskaraz behar bezala atendituak izateko eskubidea dute eta horretarako, azterketa euskaraz behar bezalako maila dutenei bakarrik gainditzen ahal diegu.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 97-I-30

*«Gezurra nagusi den giro edo momentu batean bizi garela uste dut. Dirua eta beste balore batzuk nagusitu egin dira, eta humanismoa esaterako bigarren maila batean gelditu da».*

**Mikel TABERNA**
Berako idazlea
Diario de Noticias 97-I-30

*«Laguntza ofizialetara ohitu gaituzte, baina politika okerra iduritzen zait, zuzenena merkatuan bidezko prezioak ordaintzea litzateke, eskupekorik gabe».*

**Fermin BARAZABAL**
Azpilkuetako nekazaria
Diario de Noticias 97-I-31

*«Nik aktore lana joku baten moduan hartzen dut, eta ez dut pentsatu ere egiten hontara dedikatzea».*

**Iñaki PERURENA**
Harrijasotzaile eta «Goenkale»ko aktorea
Diario de Noticias 97-2-1

## 11 GALDERA LABUR



**Birginia ARBURUA**
Etxekoandrea
ETXALAR

- **Etxeko lanetan edo kanpokoetan gustorago?**
- Ni etxeko lanetan gustoena.
- **Sukaldeko lana edo bertzelakoa duzu maiteago?**
- Sukaldekoa eguneroko beharrezko lana izanagatik, bertze lan batzuk gogokoago ditut.
- **Elizako koruan kantatzen duzu. Hala egin beharra edo kanturako gogoagatik?**
- Bi arrazoiengatik, egin behar delako, batetik, baina gustatu ere egiten zait.
- **Kantatu edo musika entzutea nahiago?**
- Bi gauzak.
- **Zure gogoko kantari baten izena?**
- Amaia Zubiria
- **Gaur umeak hezitzen laguntzea, lehen baino zailagoa dela iduritzen zaizu?**
- Zailago ez dakit. Diferentea da.
- **Nork du protagonismo haundiagoa herrian: gizonek edo emazteek?**
- Dudarik gabe, gizonezkoek.
- **Emaztekiek bere gain hartzen duten gauzaren bat?**
- Haurraren hazitze eta hezitzeari dagokiona, eskola, etabar.
- **Kirola edo jarrita egonezko jostatzea?**
- Kirola nahiago dut.
- **Nolako kirola egiten duzu?**
- Ibili, oinez ibili. Eta udan igeri egin.
- **Herriko Etxeko arduretan ere parte hartu duzu. Nolakoa da lan hori zuretzat: gogorra, zaila, atsegingarria?**
- Zail samarra gehienetan. Dena den, batzuetan atsegingarria ere bada.


**ttipi-ttapa**
© 631188

NAFARROAKO PRODVKTV BEREZIAK
*ELIKAGAIAK*
*Gazta, Txistorra, abatekiak, goxuak, barazkiak, ardoa, patxarana eta likorrak*
*ESKULANAK*
*Egurra, buztina, burdina, zumitza*
**Astelehenetik igandera irekia**
Altzate 14 • Tfnoa: 631151 • **BERA**






DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*
Eztegara 19 • © 63 02 40
BERA

TURISMOA

# %25 bisitari gutiago izan zituen iaz Bertizko Natur Parkeak

## Aurtengo egitasmoak ere aurkeztu dituzte

Joan den urtean Bertizko Natur Parkeak 76.631 bisitari jaso zituen, 1995ean baino %25 gutiago. Abuztua izan zen lagun gehien bildu zituen hilabetea (14.308). *"Mendi turismoa gutitzeak eta eguraldiak eragin du jautsiera hau"*, Parkeko Zuzendaritza Batzordearen ustez. Bisitarien %64,2ak (37.096) partikularki bisitatu zuen parkea eta gainerakoak eskola (11.893) edo helduen taldeetan (8.418). Bisitarien %75ak Interpretazio Zentrua bisitatu zuen.




**Parkea ikusterat sartzeko, 200 pezeta kobratzen hasi ziren iaz**

### 68 MILIOI PEZETA IAZ

Ia 68 milioi gastatu ziren iaz: 26'85 milioi erabilera publikorako kudeaketan (bisitariei harrera, eskola kanpaina, Interpretazio Zentrua...); 30'37 milioi ekipamenduak zaharberritzen; 2'49 mantenimenduan; 5'97 milioi erakusketetan; 1'70 Interpretazio Zentruaren mantenimendu gastuan eta milioi erdi pasatuxea Parkeko mapa eta liburuxka argitaratzeko.

1997rako egitasmoei dagokienez, aurten aisialdirako ekitaldi egitaraua bultzatuko da, batez ere talde antolatuen parte ez diren bisitariei zuzendua. Hezkuntza mailan, eskola kanpaina urte guzira hedatu nahi da eta eskolaz kanpoko taldeekin inguru-giro hezkuntza landu nahi da. Publikoari zuzendutako ekitaldiok eta garbiketa eta mantenimendu lanetarako 25'39 milioi erabiliko dira.

Bertzalde, Natura eta Etnografiari buruzko lau erakusketa burutuko dira maiatza eta urria artean, 6 milioi pezetako aurrekontuarekin. Oihanetan eta bertan bizi diren animalien kudeaketa eta ikerketa ekintzak ere eginen dira. Arboladi exotikoen ordez bertakoak sartu nahi dira poliki-poliki eta parkean bizi diren ugaztun talde ezberdinak zenbatu eta jarraipena egin nahi zaie. Gainera, bioaniztasunaren inguruan Eusko Ikaskuntzak burutzen ari den egitarauaren barnean, Bertizko ugaztun ttikiei buruzko lana urrian akituko da.

Ekipamendu eta mantenimenduan, Etxeberria etxean eta lorategia zaharberritzeko proiektuak eginen dira.

BORTZIRIAK

### Gizarte Zerbitzuen eta Zabor Mankomunidadeen aurrekontuak onartuak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunidadeak 25.197.000 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu aurten, 1997ko aurrekontu arrunta behin betirako onartu ondotik. Gasturik haundiena langilegoa ordaintzen joanen da (19.491.000 pezeta). Sarrerarik garrantzitsuena, berriz, ohiko transferentzien bidez kutxan sartuko diren 21.287.000 pezetak izanen dira.

Zabor Mankomunidadearen aurrekontua, berriz, 38.868.200 pezetakoa izanen da. Ia 20 milioi pezeta ondasunak eta zerbitzuak erosten gastatuko da eta 3 milioi inbertsioak egiten gastatuko dira (bertzeak bertze, pilak biltzeko zaborrontziak paratu nahi dira). Tasen bidez 30 milioi terdi pasatuxea eskuratuko du.

#### GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN LAN-DEIALDIAK

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadeak gizarte langilea lan-kontratu finkoarekin hartzeko deialdia luzatu du. Xehetasunak, agiriak eta eskaerak aurkezteko epea ren berri Aldizkari Ofizialean azalduko da eta Mankomunidadeko idazkaritzan, Etxalarko Herriko Etxean aurkeztu beharko dira. Eraberean, bi famili langile aldi baterako eta lanaldi partzialean kontratatzeko deialdia egin da.

Dia %
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6 • © 63 14 03 • BERA

AHORRO-BERRI
janaridenda
Legia 4 • BERA
Igande goizetan irekia

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA

## BERA

# Jose Luis Telletxearen egoera ahobatez salatu du udalbatzak

Presoa Espainiara extraditatzeko baimena eman du Lisboako epaitegiak

KRISTINA BOAN

Jose Luis Telletxea Maia herriko preso politikoaren egoera salatuz Berako Senideak erakundeak aurkeztutako idatzia ahobatez onartu du udalbatzak. Jakina denez, Lisboako *Tribunal de Relaçaok* Telletxea Portugaldik Espainiara extraditatzeko baimena eman du. Mozioak auzitegi horren jarrera salatu du, *"Espainiak erabili ohi dituen torturak eta tratu txarrak justifikatzen dituelako"*. Eraberean, Espainiako eta Portugaleko agintari politikoen neurriz kanpoko esku hartzea salatu da idatzian, *"berez epaimahai bati dagokion erabakia baldintzatzeagatik"*. Joxe Luisen aurka dauden proba bakarrak *"torturapean lortutako deklaraziotan oinarritzen dira, Europear Batasuneko torturaren aurkako komiteak salatu duen bezala"* gogoratu ondotik, *"Portugaleko Gobernuari preso dagoen beratarraren izaera politikoa onar dezan eta Aterbe Eskubidea eman diezaion"* eskatu dute Herriko Etxetik. Telletxeak gose grebari ekin zion joan den astean, epailearen erabakiaren kontra.



### Ricardo Baroja eskolakoen bisitaldia

Otsailaren 3an TTIPI-TTAPAren bulegoa bisitatu zuten Ricardo Baroja eskolako 6. mailako ikasleek. Aldizkariaren historia eta gaur eguneko egoerari buruzko galderak luzatu eta Internet-en kuxkuxeatu ondotik, xintxo-xintxo argazkirako prestatu ziren. Arg.:Joxemanuel

### Udal karguen ordainsariak aldatuko dira

Alkateak eta zinegotziak kobratuko dutenari buruzko eztabaida izan zen azken plenoan eta Herrialdek egindako proposamena onartu zen, alkatearen kalitatezko botuarekin. EAk udalaren funtzionamenduan aldaketarik izan ez denez, sariak ere ez aldatzea eskatu zuen. HBk, berriz, komisio eta batzarretara agertzeagatik zinegotzi bakoitzak mila duro eta alkateak bikoitza kobratzea proposatu zuen. Alkateak HBren jarrera salatu zuen eta *"egiten ari den lan guziarekin, nik kobratu behar ditudan 60.000 pezeta horiek aberasteko direla"* erratea penagarritzat jo zuen.



### Txistuaren Eguna

Antonio Goia txistulariari omenaldia egiteaz gain, garai guztietako musikariak elkartzeko baliagarria izan zen urtarrilaren 26an ospatu zen Txistuaren Eguna. Kultur Etxeko ekitaldi nagusiaren ondotik Iamotenean bazkaldu zuten. Herriko txistulari gazteek egun honetan parte hartu zuten guzien laguntza eskertu dute. Arg.:Ondikol

### ▼ flash

**Emakumeen eskulanen erakusketa**
Uxua Emakume Taldeak, Emakumearen Astea hurbiltzen ari dela eta, martxoan eginen den erakusketarako eskulanak prestatzen joateko deia luzatu du.

**Agerra mendi taldea**
Igande honetan, otsailak 16, Agerra mendi taldeak La Mongie ski estaziora irteera antolatu du. Irteera Agerra mendi taldeko egoitzatik izanen da goizeko 5,30etan. Autobusaren prezioa 1.000 pezetakoa da eta forfaita eta skien alkilerra liberetan ordaindu beharko da.

**Musika eskolan**
Juan Ramon Pikabea izanen da udal ordezkari berria, Fermin Garciaren ordez.

BEIRA KRISTALDEGIA
Agerra auzoa haretegi parean
© 630557 • BERA
© 929.443765
Kristal biselatuak
Kristal dekoratuak
Ispiluak
Bidrierak
Kristaldegia orokorrean

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 63 00 83 BERA

## LESAKA

# Arrano elkarteak hamargarren urteurrena ospatzen ari da aurten

Otsailaren 21ean Etxart aita-semeak arituko dira kantari

AITOR AROZENA

Hilabetero ekitaldiren bat antolatzeko asmoarekin ospatzen ari da aurten bere hamargarren urteurrena Arrano elkartea. Urtarrilean Pepe Rei kazetariaren solasaldia izan zen eta otsailaren 21ean, gaueko 11etatik aitzinera, Niko Etxart eta bere aita arituko dira kantari elkartean. Ekitaldira debalde sartu ahal izanen da eta Korrika kulturalaren barnean kokatua dago. Datozen hilabetetarako ekitaldiak *"pixkan-pixkan lotzen ari gara"* dio Eduardo Konde, elkarteko kideak. Josu Goiaren kantaldia, antzerkia, erakusketak eta bidairen bat egin duten lesakarren diapositiba emanaldiak egiteko asmoa dute, bertzeak bertze. Abendu aldean ospatu ohi den Arranoaren Egunaren ordez, aurten Aste Kulturala burutu nahi dute.

### HERRIKO JENDEAREN BEHARRETARA IREKIA

Hamar urteotako balantzea egiterakoan, *"inportanteena herriko jendearen beharrak hornitzeko bertze aukera ireki bat izatea da, ez bakarrik bazkideentzat. Musika taldeak, bertso eta trikitilari eskola... bertan izan ditugu"* dio Batzordeko ordezkariak. Hortaz gain, zakozarra, Sanferminetako bertso saioa, udazkenean kantaldia eta udan pelikulak antolatzen dituzte. Etorkizunera begira *"herriko giroa suspertu eta bazkideen inplikazioa nahi dugu"*.

Gaur egun 92 bazkide ditu Arrano elkarteak, Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe presoak, ohorezko bazkide direlarik.



### Sokatira taldea Munduko txapelketara

Beti Gazte sokatira taldea Ingalaterrako Torbay hirian otsailaren 20tik 24ra burutuko den Munduko Txapelketan parte hartuko du. Hamabortz lagun joanen dira 560, 600 eta 640 kilotik behitiko pisuetan aritzeko. Zaila izanen dela onartu arren, *"maila ttikietan, 560 eta 600 kilotan, zerbait ekartzeko intentzioarekin"* joanen dira, Agortxeberriko Jose Angel Mitxelena tiralari beteranoak dioenez. Beti Gazteko Herri Kirol sailak herriko komertzio, denda eta ostatuen laguntza eskertu du. Artxiboa

### Ordenagailuko Windows programa ikasteko ikastaroa

Datozen bi asteetan, astelehen, asteazken eta ortziraletan (otsailaren 17, 19, 21, 24, 26 eta 28an), ordengailuendako Windows programari buruzko ikastaroa burutuko da San Fermin jubilatuen egoitzan. Ordutegia arratsaldeko 6etatik 9etara izanen da. CANeko Club 10eko kideek 14.500 pezeta ordaindu beharko dituzte eta gainerako jendeak 19.500 pezeta.

### Gazte Asanbladaren bilera larunbatean

Larunbat honetan, otsailak 15, eguerdiko 12etatik aitzinera Gazte Asanbladaren bilera burutuko da Herriko Etxeko arkupetan.

### Matrikulazio kanpaina

Ortziral honetan, otsailak 14, akautuko da Bortzirietako euskaltegian izena emateko epea. Informazioa eta izena emateko 637796 telefonora deitu behar da.

## Pertsonaia

*«Itoizko urtegiarena guztion arazoa da, ez hango bizilagunena bakarrik»*

Itoizko urtegiaren aurkako kanpaina burutu behar da asteotan eskualde osoan. Lesakan martxoaren 1ean emanen dute bideoa eta solasaldia. Itoizko Solidarioen kide den Jon Lekuberria da antolatzaileetako bat.

**Zein helbururekin eginen duzue kanpaina informatibo hau?**

Itoizko urtegiaren arazoa ez da hango biztanleena bakarrik, guztiona baizik. Jendeari mezu hori ailegatzea nahiko genuke. Bertzalde, Daniel Unzitiren egoera salatu nahi dugu, Itoizkoa izateagatik eta montaje baten ondotik Iruñeko kartzelan baitago.

**Zer lanetan ari dira orain Itoizko Koordinadora eta Solidarioak?**

Gehien bat informazioa ematen. Koordinadorak nahiko lan badu judizialki eta guk zenbait mobilizazio egiten ditugu. Denon artean obrak gelditzea lortuko dugu.

**Iaz obrak geldiarazi ondotik, orain zertan daude?**

Joan den urtean kableak moztuz lanak gelditu zituzten, mobilizazio famatua izan zen. Baina dagoeneko kableak han daude eta probisionalki lanean hasteko moduan bat paratua dute.



Jon LEKUBERRIA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

## ETXALAR

# Udalak onetsi ditu 1996. urteko kontuak

Sartutako diruak ateratakoa gainditzen du

PELLO APEZETXEA

Herriko administrazioaren ardura duten Herriko Etxeko gizon-emaztekiek ez dute lorik aisa galduko, iazko kontuen emaitzak ikusi eta. Zera alegia, zorraren zamak ez diela kezka gehiegirik sortuko. Izan ere, urtearen azkenean zorrik ez baita. Ordaindu beharrak bai, badira, baina horiek ordaintzeko eta gehiagorako ere gai da Udala, gelditu den diruaz. Denetara, 88 milioiko sarrerak eta 53 milioiko gastuak gertatu dira. Kreditu batzuen ordaintzeko bospasei milioi berehala joanen badira ere, oraindik geldituko da multxo bat. Jakinahia zerbait bederen asetzeko, hara zein izan diren diru-sarrera nabarmenenak: Nafarroako Gobernutik hartutakoak 21 milioi, Kontribuzio eta Lizentzia Fiskalagatik bilduak 10 milioi, arbola salmentatik ia 5 milioi, autoei kobratutako zergatik 3 milioi eta erdi, Usategietako enkantetik 3 milioi eta erdi.







**Ortzegun Gizen**

Goizeko etxez-etxeko itzuliak egin eta arratsaldeko hiruetan hasi zuten haurrek taldeko itzuli eta besta nagusia. Plazan sarrera eta azalpen gisa bertso batzuk kantatu ondoren, bertako trikitilarien laguntzaz, auzoz-auzo eta adinez-adin, antzerki lan politak eskeintzen joan ziren, berriz ere plazan akautzeko. Berenduak eman zien bukaera haurren eta irakasleen lanei eta helduen gozamenari, gurasoak prestatutakoaz baliatuz. Argazkietan trikitilariak, ttikienen antzerkia eta zingar-arraultze eskean. Argazkiak: Pello

### Bizilagun kopurua jautsi egin da

Ez, gauza haundirik, baina errolda berrian 837 bizilagun ageri omen dira, iazko maiatzeko kontaketaren arabera. Egia erran, 20 edo 30 lagun gora-behera ibiltzea ez da hain zaila. Egiatan kanpoan bizi den jendeak, hemen izen emana, momentu batean hala gomeni eta, bizi den tokian ematen du izena. Bada ikasketak egiten ari den jendea ere, kanpoan izen ematen duena, nahiz eta gero berriz itzuliko den. Eta antzekoak.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

OKANE
HARATEGIA · URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
SAGARDOTEGI MENU BEREZIA
Txorizoa sagardo erara
Bakailu Tortila
Idi txuleta
Gasna, menbrilloa, intxaurrak eta sagardoa nahi adina
Pertsonako 1950 Pta. (2 pertsona gutienez)
© 635290 ETXALAR
ASTEARTETAN ITXITA
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

koxkonta

Sagardotegia zabalik
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 637264

## IGANTZI

# Heldu den astean Igantziko Biltokin urteko bilkurarik garrantzitsuena

### Otsailaren 18an Arkupeko bazkideen bazkaria eginen da

OSKAR TXOPERENA

Hagitz interesegarria ageri zaigu otsailaren 22an, ilunabarrean, Biltokin eginen den urteko batzar orokorra. Ohikoak diren gaietaz gain (urteko kontuak eta ekintzak, alta eta bajak, junta berritzea, etab…). Bi gai dira batzarra garrantzitsu egiten dutenak. Alde batetik, aspalditik bueltaka dabilken eskolako jantokiaz eztabaidatuko da, eta bertzetik, Biltoki Ttikirekin sortutako arazoari eman beharreko irtenbideaz. Bilerara ez faltatzeko moduko gaiak, dudarik gabe.



**Joan dira Iñauteak**

Joan dira bertze urte batez ere iñauteak. Hogeitabi izan dira azkenean etxez etxe ibili diren gazteak. Alde horretatik eta jazkerari dagokionez Igantziko iñauteak finkatuxeak daudela ematen du, hagitz urte motelak pasatuta, dena erran behar badugu. Bada, halere, zertan lan egin oraindik.

Arg.: Oskar TXOPERENA

### Arkupeak elkartearen urteko besta

Heldu den asteartean, otsailak 18, eginen dute Igantziko Arkupeak elkarteko bazkideek urteko besta. Ohitura denez, meza entzun ondotik, egindako eta egin beharreko ekintzen berri izanen dute, besta Herriko Etxean eginen duten bazkariarekin akautuz. Oraindikan dudatan dabiltzanak jakin dezatela otsailaren 14a baino lehen eman beharko dutela izena.

### Abesbatzaren zozketa

Ez da inor agertu abesbatzak eguberrietan egindako zozketaren sariak biltzera. Hori dela medio, hamabortzero zozketa berria egitea erabaki dute, norbait agertzen ez den bitartean. Oraingo zenbaki sariduna 1938a da. Oroitu bizikleta eta zare ederra dituzuela esperoan.

### Kirol ikastaroak

Herrian kirola egiteko aukera gehiago eman nahi zaie haurrei. Horretarako, Lesakako Osasun Etxeko pediatria zerbitzuarekin koordinatuta, kirol ikastaroak antolatu nahi dira, astean bitan egiteko, asteazken arratsaldetan eta larunbat goizetan. Honen berri emanez informazioa banatuko du Guraso elkarteak, baldintza eta epeak zehaztuz.


ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira


EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA



© 631076 • BERA

barnek s.l.
Sukalde mobleen fabrika
Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan
Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

LEGARRA
Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak

KIROLAK ZELA
Altzate 6, © 63 05 98
BERA

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika

Beheko Plaza 8 © 637791 • LESAKA

## ARANTZA

# Emakumeen afaria, mozorroak, herri kirol apostua... a zer iñauteriak!!

Laukoteak irabazi zuen Larretxea anaien kontrako apostu mundiala

ELIXABET ETA GARBIÑE

Dirudienez iñauteak hagitz giro onean pasatu ditu jendeak. Lehendabiziko gaua emakumeen afariarekin hasi zen eta bertara 27 emakume bildu ziren. Erraten ahal da ederki pasatu zutela, mozorroek afalondoa alaitzen lagundu baitzieten.

Ortziralean, egunez mozorroak baserrietan barna ibili ziren eta gauez, Kristina eta Amaia taldeak plazan jo zuen. Ortzirala herriko jendearen eguna edo gaua dela erran daiteke, inguruko herrietatik jende gutti agertzen baita. Ezin dugu hori erran larunbat gauari buruz, inoiz baino jende gehiago hurbildu baitzen. Itxura batean, ezagunak egiten ari dira herriko iñauteak.

Igandean herri kirol desafio mundiala izan genuen eta Lorentxo Apezetxea, Tomas Oskoz, Oscar de Rueda eta Josemigel Errandoneak osatutako laukoteak hamar segunduko aldea atera zien Larretxea anaiei. Amaia eta Kristinaren taldeak alaitu zuen giroa eta herri bazkarirako gosea irekitzeko Maddalen Lujanbio eta Jokin Sorozabal aritu ziren bertsotan. Aterpeko bazkarira ehun bat pertsona gerturatu ziren. Bazkaria giro ederrean igaro ondoren, eguna eta iñauteriak ongi bukatzeko bertsolari eta trikitilati gazteek beraien saioa eskaini zuten.




**Herri kirol saioko protagonistak: Larretxea anaiak eta herriko laukotea**
Argazkia: Legarra

### Herri kirol taldea

Urtero bezala herri kirol taldea osatu dute herriko taldeek. Normalean talde bat ateratzen da baina aurten bi egin dituzte, biak proba konbinaturako. Lehen saioa otsailaren 1ean izan zuten herriko frontoian. Kadeteak lehenbizikoak gelditu ziren eta infantilak hirugarrenak.



Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**
BERA DESINFECCIONES
✆ 63 01 55
BERA

**ALZURI**
• *Sukalde tresneria eta opariak*
• *Landare eta loreak*
Tel.: 63 03 70 • **BERA**

*KATTU*
**ostatu - jatetxea**
**Plater konbinatuak eta menuak**
✆ 627573 • LESAKA

**ttipi-ttapa**
*6.300 harpidedun*
*22.000 irakurle*
internet-en:
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
helbide elektronikoak:
ttipi@encomix.es
ttipi@mail.sendanet.es

**ORBELA**
gimnasioa
• Squash eta sauna
• Hidromasaje bainua
• Muskulazio-aretoa
• Masajea:
  - Orokorra
  - Kirol masaia
  - Giharrak lixatzeko
  - Bizkarreko mina
  - Beso eta zangoak
  - Errekuperazioa
Antoiu 21 • ✆ 637950 • **LESAKA**

**Aranguren**
**Aroztegi mekanikoa**
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
• **Leihoak**
• **Aurre-markoak**
• **Eskailerak**
• **Fabrikanteak gara**



ZIALDO OSTATUA
LESAKA

## SUNBILLA

# Igandeko karroza desfilea ikusten 6.000 pertsona inguru izan ziren

Frontoiko jaialdira ezin sartuz gelditu zen jendea

JOSUNE ETA ISABEL

Ortziralean hasi ziren iñauteriak, puska biltzearekin eta emakumeen afariarekin. Azken honetan 70 emakume elkartu ziren. Larunbatean berriz, mozorro aunitz ikusi ziren herrian barna. Halere, duikabe, egunik inportanteena igandekoa izan zen, hamabosgarren urtea betetzen zuen karrozen desfilearekin. Aurtengo karrozen artean, Warner Brothers zine estudioa, budisten tenploa, Segoviako ihesaldia, Bordatxo, lehengo jaunartzea eta bertze zenbait ikus zitekeen. Frontoiko jaialdian, Isabel Gemio eta *'Sorpresa, sorpresa'* programa ikusi ahal izan zuen pilotalekura sartzera lortu zuenak, jende aunitz kanpoan geldi behar izan baitzuen.







**Karrozen artean, rapero gaztetxo hauek ageri ziren. Beheitiko argazkietan, Bolullos del Condado herriko seikien jaiotza eta inkubagailua**

### Antzakaitz taldeak lokala izanen du

Antzakaitz kultur taldeak eskatutako lokala ematea erabaki zuen azken udal batzarreak. Momentu honetan dagoen lokal bakarra frontoiko pisua da, beraz, hurrengo bilera Bustitz ostatuan eginen da otsailaren 22an, arratsaldeko 3etatik aitzinera.


GAZTANDEGIA
LIZUN
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

LAUKI KRISTALDEGIA
• Ispiluak
• Kristaldegia orokorrean
• Kristal klase guziak jartzen ditugu
• Grabatuak kristalean eta edozein materialetan
• Aurrekontuak kristala jarrita eta jarri gabe
© 450595 • SUNBILLA

ARIN ASEGURUAK
Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE
• Kotxeak
• Kamioiak
• Etxebizitzak
• Enpresak
• Istripuak
• Bizitza
• Aurrezkia
• Bertzeak

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

## DONEZTEBE

# Euskararen transmisioari buruzko erakusketa eskolako gimnasioan

### Otsailaren 17tik 24ra ikusgai egonen da

TXEMA ALDABE

"Ahoz aho, belaunez belaun" izeneko erakusketa interesgarria ikusteko aukera izanen da Donezteben, eskolako gimnasioan otsailaren 17tik 24ra. Erakusketa honen helburua hauxe da: familiak eta eskolak gehienbat, eta gizarteak, orokorrean, euskararen transmisioan duten garrantziaz ohartaraztea. Beraz, ikasleak eta gurasoak direnendako eta hezkuntzan parte hartzen duten guziek ikusi beharrekoa da. Erakusketaren ordutegi zehatzagoa jakiteko eta noiz ikusten ahal den jakiteko hobe eskolara deitzea, 450229 telefonora.

Erakusketaren forma komikian oinarrituta dago eta erabilitako materiala, berriz, panel magnetikoak eta muralak, ipuin kontalaria, familia, eskola eta gizartea adierazteko. Honetaz gain komunikabideak (irratia, telebista eta kioskoa) eta informatika-bitartekoak (ordenagailua erabiliz, testuak landuz, galderak, jokoak, etab...). Dokumentazio aldetik kartelak, liburuxkak, kartillak, komikiak eta gida didaktikoak erabiliko dira. Honen inguruan antzeslanak ematea pentsatua dago. Eraberean, adineko jendearekin solasaldiak eginen dira, orain dela 60 urte herrietako bizimodua nolakoa zen kontatzeko. Ekitaldi hau Doneztebeko eskolak eta Nafarroako Euskara Zerbitzuak antolatu dute. Dudarik ez da, denok ikusi beharreko erakusketa dela. Gainera, Baztan-Bidasoa inguruan Donezteben bakarrik egonen da. Leitzan ere egin gogo da honen pareko bat.





**Iñauteriak eskolan**

Otsailaren 7an, ortziralean, iñauteriak egin zituzten eskolan Lehen Hezkuntzako ikasleek. Goizean desfilea egin zuten Bear-Zana frontoiraino eta han dantza. Arratsaldean, eskolan dantza eta musika eta ondotik, guraso elkarteak prestatutako txokolate goxoa jan. Zaldua

## Arbolaren Eguna

Otsailaren 5ean Arbolaren Eguna ospatu zuten eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek, hau da 6. maila artekoek. Hortxe aritu ziren arbolak landatzen, eskolan bertan, eskola inguruan eta Intzakardi parkean, hiru erakusle zituztela aitzinean. Animo eta nahi adina arbola landatu urtean zehar, eskasi haundia da eta.




Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin IRAZOKI

ORDUTEGIA
Astearte eta ortziraletan, goizeko 9,30etatik aitzinera
Asteazkenetan, 3etatik aitzinera

Parrokia 5 • ✆ 451854, 908.576388 • DONEZTEBE

## MALERREKA

# Mendialdeko emakumeen lan integraziorako proiektuaren bigarren fasea hasiko da

Eskualderako informazio bilera otsailaren 18an Doneztebeko Juansenean

TTIPI-TTAPA



**Etxe partikular eta Zahar-Etxetan praktikak egiten ari dira, gerora, eskaintza publikoa osatuko duen enpresa pribatu bat martxan jartzeko**

Proiektu honen bitartez, Nafarroako Mendialdeko zenbait emakume kolektiboren lan integrazioa erraztea bilatzen da eta maiatzean hasiko da formakuntza plangintzaren bigarren fasea. Proiektua Apef-Myrina izeneko programan sartzen da eta Cederna-Garalur elkarteak diseinatu eta bultzatu du.

Erakunde honen helburuen artean, lan-munduan emakume-kolektibo zehatz baten txertaketa lortu, hurbileko zerbitzuen eskaintzaren profesionalizazioa, landa-zonaldeen zerbitzu asistentzialak haunditu eta biztanlegoa bere herrian gera dadin laguntzea daude, bertzeak bertze. Lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeetan (helduak, prestakuntza kualifikaturik ez dutenak edo familian betetzen duten funtzioarengatik, lanerako aukera bakarra etxeko lanetan aritzea dutenak) pentsatuta diseinatuta dago proiektu hau.

### Prestakuntzaren edukiak

Emakume hauei ikastaro zehatzak eskainiko zaizkie, len zehatzak egiteko jakin behar dutena erakatsiz, beti ere, hurbileko zerbitzuen mundu horretan. Hurbileko zerbitzuen, medikuntzaren eta psikologiaren hastapenak, psikomotrizitatea, erizaintza, komunikazioa eta dinamizazioa, enpresa kudeaketa eta formakuntza praktikoa dira eskainiko diren ikastaroak.

Momentu honetan eta apirila bitarte, 30 emakume parte hartzen ari dira proiektuaren lehen faseko ikastaroetan, aurrez 109k izena eman bazuten ere. Hogeitamar emakume horietatik zortzi eskualdekoak dira.

### Informazio bilera Juansenean

Informatzeko eta aurrez izena emateko epea urtarrilaren 27tik martxoaren 7ra zabalik izanen da. Egun horretatik aitzin, izena eman dutenen arteko aukeraketa eginen da, eskariorriaren arabera, pertsonalitate eta psikoteknia frogak gauzatuko dira eta buruz buruko elkarrizketa burutuko da.

Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Bortziriak, Malerreka eta Leitzalderako informazio bilera datorren asteartean, otsailak 18, arratsaldeko 6etatik aitzinera eginen da Doneztebeko Juansenean. Sakana, Larraun-Ultzama eta Leitzarango emakumeei zuzendutako bilera berriz, otsailaren 19an, Irurtzungo Kultur Etxean burutuko da, arratsaldeko 6etan.

# Kontuen egunarekin akitu ziren Iturengo iñauteriak

IBAN ISASI

Aurtengoan ere kontuen egunarekin akitu ziren ziztu bizian igaro diren iñauteri egunak. Otsailaren 1ean aizkora apustua burutu zen eguerdian. Larretxea eta Olasagasti kanaerdiko launa enbor moztu zituzten, zortzi ebakialdi emanez. Olasagastik enbor erdi baten aldea atera zion aranztarrari. Eguerdian eta bazkalondotik Lizaso eta Agirre bertsolariak aritu ziren. Bazkarira inoiz baino jende gehiago hurbildu zen, 170 bat lagun. Haragia eskastu eta Elgorriagako harategira joan behar izan zuten txuleta gehiagoren bila, pentsa!!

Atsalde eta gauez *Etzakit* trikiti taldeak jarri zuen musika.

### Aurtizko ostatua

Getariko famili batek hartu du Aurtizko Ostatua. Zenbait moldaketaren ondotik irekita dago berriz, bazkari-afariak emateko edo egarria ase nahi duen edozeinen esku.

**Haur, gazte, heldu eta adineko jendeak iñautetan ederki pasatu ahal izan zuen**



## Zenbait herrietako jubilatuek urteko besta ospatuko dute ortziralean

Ortziral honetan, otsailak 14, Doneztebe, Urrotz, Oitz, Donamaria eta Gazteluko jubilatuek urteroko besta ospatuko dute Donezteben, Arkupeak elkarteak antolatutako ekitaldian.

Goizeko 11etan Meza Saindua Doneztebeko elizan, gan den urtean hil diren lagunen alde. Eguerdiko 1,30etan bazkaria izanen dute Doneztebeko Jubilatuen ostatuan eta ez nolanahiko menuarekin, gainera: arrain zopa, legatza, solomilloa, ura, ardoa, tarta, helatua, txanpaina, kafea eta kopa. Bazkalondotik dantzaldia izanen da, arratsaldeko 7,30ak aldera arte.

Bazkide direnek 2.500 pezeta ordaindu beharko dute eta 3.000 pezeta Arkupeak elkarteko kide ez direnek.

## Urteroko omenaldia ere prestatzen hasia da Arkupeak elkartea

Ekainaren 30ean ospatuko da Arkupeak jubilatu eta pentsionisten elkarteak urtero antolatzen duen besta. Jakina denez, 85 urte betetzen dituztenei eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteei omenaldia eskainiko zaie. Omenaldi hau dela-eta herrietako delegatuak hasiak dira baldintza hauek betetzen dituen jendearen bila. Maiatzaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dituzte izenak elkartearen bulegoan.

## Gogo jardunaldiak antolatu ditu Arkupeak elkarteak Oharrizen

Joan den urtean lortutako arrakasta ikusirik, aurtengo Garizuman ere jubilatuendako gogo jardunaldiak antolatu ditu Arkupeak elkarteak Oharrizen.

Otsailaren 20an, ortzegunez, goizeko 10etan bilduko dira eta arratsaldeko 6etan akituko da Aita Martzelen zuzendaritzapean burutuko den ekitaldia. Bazkaldu, Oharrizen bertan eginen dute, horretarako 1.200 pezeta ordainduz. Jaldunaldi hauetan erabiliko den hizkuntza euskara izanen da, baina Arkupeak elkartetik adierazi dutenez, *"erdaraz nahi duen talde bat osatuko balitz, hizkuntza honetan beste tanda bat antolatuko litzateke"*.

Bi helburu nagusi dituzte antolatzaileek. Alde batetik «Bizian gora» kristau jubilatuen mugimendua *"gure artean martxan jartzea"* eta bertze aldetik, *"fede giro eder batean jubilatuek elkarrekin ordu batzuk pasa ditzaten aukera eskaintzea"*.

Iaz 28 jubilatu bildu ziren hiru egunetan.



## GOIZUETA

# Nafarroako Gobernuko kontseilariak inauguratu zuen mediku kontsulta

17.200.000 pezetak Osasunbideak ordaindu ditu

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako Gobernuko bozeramaile eta Osasun saileko kontseilaria den Santiago Cerverak inauguratu zuen mediku kontsulta berria hilbeltzaren 11n. Bertan izan ziren, baita ere, departamendu bereko zuzendari orokorra eta udal korporazio osoa, Pili Untxalo alkatesa buru zela. Kontsultarenak eta larrialdietarako medikuak erabili dezaken pisuaren lanak 13 milioietara igo dira guztira. Bi lokalen ekipamenduak berriz, beste 4'2 milioi eramanen ditu, hauetatik 2 milioi materiale klinikoan gastatu direlarik. Dirutza hau guztia, 17'2 milioi, Nafarroako Gobernuak ordaindu du.

### Tetanoaren kontrako txertoa

Hain zuzen, Osasun Etxetik dator hurrengo berria. Badirudi, orain dela 5 urte inguru herritar askok tetanoaren kontrako txertoren bat hartu zuela. Halere, oraindik ez omen daude gaitz honi harrapatzearen arriskutik libre, beste fase bat izanen baitu txertaketa horrek. Beraz, erizainaren kontsultatik igaro beharko dute guztiek berriz.

### Kanale aldaketa

TVE-1 ikusi nahi duenak UHFko 38. kanalea bilatu beharko dio telebistari, Olasoko errepetidorean egin diren aldaketak direla medio frekuentzia horretan agertuko baitira hemendik aurrera kate espainiarraren irudiak.

### Juan Miguel gose greban egon da

Juan Miguel Apezetxea preso politikoak berriro ere gose grebari ekin zion lehengo hilean, hamahiru egunetan hamabi kilo galduz. Espainiako legedia beteko balitz, joan den urtetik libre izan beharko luke Juan Miguel Apezetxea, dagoeneko bete baititu bere garaian emandako zigorraren hiru laurdenak.



**Parapente ikastaroa**

Otsailaren 22 eta 23rako parapente ikastaroa antolatu du Gazte Asanbladak. 2.500 pezeta balio du izen emateak.


# EUSKARAREN UNIBERTSOA

# JARDUNALDIAK

**IZEN EMATEKO ORRIA**

Izen deiturak ..........

Helbidea .......... Herria ........ Kodea ..........

Telefonoa .......... Faxa .......... Helbide elektronikoa ..........

Elkarteren batean diharduzu? .......... Zeinetan? ..........

Elkartearen helbidea eta telefonoa ..........

..........

**Matrikula: 4.000 pezeta. Otsailaren 21a baino lehen.**

Jardunaldiak ostiralean egun osoz eta larunbata goizez izango dira; ostiralean bazkaritara gelditzeko asmoa baduzu matrikulatzeko 4.000 pezetez gain 1.500 gehiago sartu eta gurutze bat jarri ondoko koadroan: ☐

Diru sarrerak egiteko kontua: **EUSKADIKO KUTXA 3035 0063 87 063 0032385**

Bidali matrikula orri hau eta ordain agiria honako helbidera:

EUSKARAREN UNIBERTSOA
Ategorrieta hiribidea 23, 1.esk.
20013 DONOSTIA

Informazio gehiago:
Tel. (943) 27 17 13
Faxa (943) 29 06 17

## LEITZA

# Karrape irratia gure etxeetan izanen da berriro ere IKAren eskutik

## Zerbitzua lehiaketa bidez adjudikatu arte ariko dira hilaren 24ean hasita

JOSEBA AZPIROZ

Bi ordu terdikoak izanen dira, astelehenetik ostiralera, Amaia Astibia, Kontxi Zozaia eta Una Zabaletak aurkeztu eta Euskaltegiko irakasle taldeak programatutako dituzten emisioak.

### HERRITARREN PARTE HARTZEA BULTZATU

Beraien proposamenaren arabera, hauek dira bilatzen dituzten helburuak: "*Euskararen erabilera garantizatu eta bultzatzea, biztanleen informazio eta partizipazio gunea, euskal kultura eta hizkuntzaren bultzatzaile funtzioa betetzea, Euskaltegiaren inguruan urtean zehar egiten den lanaren osagarri izatea eta herritar eta herriko talde guzien parte hartzea bultzatzea, bai programazio orduetan, bai hortik aparte –Batzordeak planteiatzen dituen baldintzen arabera–*". Gogoratu: FM 107.8an izanen da entzuteko aukera.



**Jubilatuen festa otsailaren 23an**

Otsailaren 23an ospatuko dute herriko jubilatuek urteroko bazkaria. Arkupeak elkarteak eskolan antolatutako bazkarian 120-130 jubilatu biltzea espero da, nahiz eta Leitzan 200 bat bazkide dituen Arkupeak elkarteak.

Artxiboa

### Herriko mapa argitaratuko du udalak

Udalak Leitzako mapa bat argitaratuko du. Helburuak herriaren aberastasunetako bat osatzen duten toki-izenak zaintzea, beraiek bilatzeko modu erraz bat sortzea, ezagutzeko bidea ematea eta herritarren artean toki-izenekiko interesa biztea lirateke. Mapa egiteak milioi bateko kostoa du (600.000 pezeta delineanteak eta 400.000 inprentak) eta finatziatzeko Udalak 300.000 pezeta jarriko ditu, Cederna-Garalurreri 300.000 eskatuko zaizkio eta 400.000 salmentatik jaso nahi dira. Mendi batzordeak bideratuko du Jose Miguel Elosegik egindako lanean oinarritzen den maparen prestakuntza.

### Torturaren aurkako eguna

Otsailaren 13an torturaren aurkako eguna ospatzen da. Hori dela eta, Amnistiaren Aldeko Batzordeak kotxe karabana antolatu du. Plazatik 8etan aterako da eta Aresotik buelta eginen da.

## flash

### Poloniako abesbatza

Otsailaren 14an, ostirala, Leitzako parrokian, arratsaldeko 7,30etan, Poloniako Zielona Gorako Unibertsitateko abesbatzak kontzertua eskainiko du. Abesbatza otsailaren 9an etorri da Leitzara Asketa abesbatzaren eskutik eta astebetez gure artean izanen dira. Iruñan, Donostian eta Lizarran ere abestuko dute.

### Manifestaldia eta udal batzar berezia

Bake proposamen bat kaleratzeagatik, hau da, ETA erakundeak planteatutako Alternatiba Demokratikoa ezagutzera emateagatik HBren Mahai Nazionaleko kideen gartzeleratzeak direla eta, Leitzako HBk, aurreko ostiralerako manifestaldia eta udal batzar berezirako deialdiak luzatuak zituen.

### Karrapen debatea

Otsailaren 15ean, larunbata, eguerdiko 12etan Karrape irratian "*Ekarri al dezakegu pakea Euskal Herrira*" izenburupean debatea burutuko da. Leitzako HB, EA eta UILko ordezkari bana gonbidatuak daude solasaldira.

muñeca de Trapo
IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!
Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

SALDIASko zerrategia
Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak
Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86
LEITZA

## BAZTAN

# Landa-lurraldeetan lanbide berriak bultzatzeko jardunaldiak Baztan Hotelean

Europako zortzi herrialdetako adituak izan ziren otsailaren 6tik 8ra

JOSEBA IGARABIDE

Landa-lurraldeetan iharduera ekonomiko berriak bultzatzeko solasean aritu ziren Europako zortzi herrialdetako adituak Gartzaingo Baztan hotelean. *'Lanbide berriak bultzatzeko laguntza sistemak'* izeneko ihardunaldiak otsailaren 6tik 8ra burutu ziren eta Italia, Frantzia, Holanda, Erresuma Batua, Irlanda, Finlandia, Suezia eta Espainiako 72 ordezkari bildu ziren, Cederna-Garalur elkarteak gonbidatuta, Europako Leader programaren barnean.

Solasean aritzeaz gain, Baztango zenbait kooperatiba, elkarte eta enpresa bisitatu zituzten. Bertzeak bertze, Nafarroako mendialdeko sagar ekoizleen mindegia eta Bertizko Partzuergoa ikusi zituzten. Jose Maria Aierdi, Cederna-Garalur erakundeko lehendakariak bere harrotasunaren berri eman zuen, *"joan den urtetik burutzen ari diren lau ihardunaldietatik azkena egiteko Nafarroa aukeratu dutelakoz"*. Jardunaldi hauek ixteko Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria etorri zen.



### Eskualdeko hiltegiko lanak akituxeak

Elizondon egiten ari diren eskualdeko hiltegi industrialaren lanak akituxeak daude. Dagoeneko kamarak paratzen ari dira eta urbanizazioa eta argia sartzea falta da. Lanak 100 milioi inguru gosta dira eta Nafarroako Gobernuak erdia ordainduko du. Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Malerrekako aziendak bertan hilko dira, Bortzirietatik Bera edo Irunera joateko joera baitago. Honela, herrietako hiltegi tikiak desagertuko lirateke.

Artxiboa

### Jubilatuen bestak

Otsailaren 22an, Basaburua, Oronoz, Arraioz, Oieregi eta Narbarteko Arkupeak elkarteko kideak herri arteko besta ospatuko dute. Bazkaria Oronozko Pierresenea jatetxean izanen dute. Izen emateko epea otsailaren 14a arte izanen dute. Otsailaren 14an, berriz, Elizondo, Elbete, Irurita, Lekaroz eta Gartzaingo jubilatuek eginen dute bere besta, Galartza jatetxean. Asteazkenean, berriz, mus txapelketak jokatuak zituzten.

### Soldaduskaren Ordezko Zerbitzuaz eztabaidatu ondotik, UPN eta ABren mozioak onartu ziren batzarrean

UPNk aurkeztutako mozioaren arabera, Baztanen 40 gaztetik goiti dira objetore bezala onartutakoak. Laister Ordezko Zerbitzu Soziala egitera deitzen ahal dituztenez, UPNk herrian ahalik eta plaza gehien sortzea proposatu zuen. UPN eta EAko zinegotziak idatziaren alde agertu ziren, AB abstenitu eta HB kontra, *"OZSa gazteak gartzelera ez joateko aitzaki legala bertzerik ez delako"*.

Meoki zinegotziak, Agrupacion Baztandarra taldearen izenean, urrutirago joan behar dela erran zuen. *"2003. urterako soldaduskara inor ez dela joanen erran du Gobernuak. Udal honek hori bizkortzea eta oraintxe bertan, soldaduskara derrigorrez inor ez joatea eskatzen ahal du"*. Proposamen honen alde EAko 5 zinegotzik eta HB eta ABkoak bozkatu zuten. UPNkoak eta EAko bertzea abstenitu ziren.

## flash

**Arizkunenea** Kultur Etxean, tailerretara zuzenduak dauden geletan argi eskasa dagoela eta, argi sistema berria paratuko du Balleko Etxeak. Materialaren aurrekontua 125.586 pezetakoa da.

**610.000 pezeta** jaso ditu Balleko Etxeak Nafarroako Kirol eta Gazteria Institututik, joan den hurteko azken hiru hilabetetan antolatutako kirol ekitaldien antolaketan laguntzeko.

**Iruritan** emakumeari buruzko solasaldiak burutzen ari dira. Otsailaren 4an menopausiari buruzkoa izan zen eta bi orduko lau saioetan, norbera ezagutzeko ikastaroa ere burutzen ari da.

**Doike** euskara taldeak lanean segitzen du. Ohiko bileretaz gain, martxoaren 3rako 'Kontu kontari' izenburupean afaria antolatu du Lekarozko Larraldea sagardotegian.

**Manifestazioa** Igande honetan, Herri Batasunak deitutako manifestazioa burutu da Elizondoko karriketan, jasotzen ari diren *"eraso errepresiboa"* salatuz.


JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK
Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

BAZTAN
FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

## BAZTAN

# Itoizko urtegiari buruzko kanpaina informatiboa asteotan eginen da

### Ekitaldi nagusia martxoaren 9an burututuko da Elizondon

JOSEBA IGARABIDE

Larunbat honetan, arratsaldeko 7,30etan Baztandarren Biltzarraren bulegoan eginen den Koordinadoraren bideo emanaldiarekin hasiko da Itoizko urtegiaren kontrako kanpaina informatiboa. Leku berean, baina otsailaren 22an, larunbata, arratseko 8etan Solidarioen bideo emanaldia burutuko da. Ondotik, afaria izanen da Fortenean. Bideo hauek Bera (21ean), Donezteben (28an) eta Lesakan (martxoaren 1ean) ikusi ahal izanen dira eta Xorroxin irratian programa bereziak eskainiko dira.

Halere, ekitaldi nagusia Elizondon burutuko da martxoaren 9an. Igande horretan, txirrindula martxa abiatuko da Beratik Elizondora eta mendi martxa Etxalarko Lizaietatik Elizondora. 1etan kalejira erreibindikatiboa burutuko da Elizondon eta azkenik, herri bazkaria, bertsolari, trikitilari, rock, etabarrekin.




**IV. Aranabia pala motza txapelketa**

Telletxea lesakarrak eta Lizardi igantziarrak irabazi dute Iruritako Aranabia pala motza txapelketaren laugarren edizioa. Finalean 40-34 irabazi zieten Iruñeko Salvatierra eta Gaztamintzari. Irabazleak, ustekabean sartu ziren finalera. Hasierako ligaxkan laugarrenak gelditu ziren eta fase horretan partidurik galdu ez zuten Ibarra-Pernauteri irabazi zieten. Egunotan, berriz, Iruritako pala eta frontenis txapelketak hastekoak dira, emakume zein gizonezkoendako.

### Kultur ekitaldiak diruz laguntzeko deialdia luzatu du Balleko Etxeak

Elkarte ezberdinek 1997an antolatu edo antolatuko dituzten kultur aktibitateak egiteko udal dirulaguntza izan nahi badute, martxoaren 7a, arratsaldeko 2 orduak artio dute hondar eguna eskaera-orria Baztan Balleko Etxeko Erregistro Nagusian sartzeko. Horretarako zenbait agiri aurkeztu beharko dituzte, adibidez, diruz laguntzea nahi dituzten aktibitateen memoria deskribagarria, gastuen eta diru-sarreren aurrekontua eta eskaera-orria Kultura Sailak egindako eredua erabiliz egin beharko dute. Informazioa Balleko Etxean.

## flash

**Kontzertua Erratzun martxoaren 1ean**
Martxoaren 1ean, gaueko 11etatik aitzin *Exkixu*, *Otsondo 602*, *Ttakun* eta *Bizkar Hezurra* taldeen kontzertua burutuko da Erratzuko frontoian. *"Euskal Herriak izan behar du libre eta euskaldun"* diskaren aurkezpena egiteko probextuko da, Korrika kulturalaren barnean. Sarrerak aldez aurretik salgai izanen dira ohiko lekuetan.

**Baztango AEKk**
otsailaren 15a bitarte luzatu du matrikulatzeko epea.

**Iruritako Garagardo Besta**
ekainaren 14an ospatuko da aurten. Antolatzaileek kutxak banatu dituzte ostatuetan, jendeak zein musika talde ekartzea nahi duen iritzia eman dezan. Inkesta honetan partehartzen dutenen artean 10 sarrera zozketatuko dira.

**Iruritako**
gazteek sendotza egin dute igandean Sebastian artzapezpikuaren eskutik.


BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ 58 02 78

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
MERKEALDIEN HONDAR EGUNAK
Heldu den astean
UDABERRIKO ARROPA eta
PUNTA-PUNTAKO MODA

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 580313
ELIZONDO

## ZUGARRAMURDI

# Herriko Etxea barnetik eta kanpotik moldatzen ari dira

Martxoaren 20rako idekitzea espero da

MARGARI ETA KORO

Goititik beheiti berritzen ari dira Herriko Etxea. Urtarrilaren 15ean hertsi ondoren obretan ari dira. Kanpotik zartatu eta pintatu dute eta barnetik berriz, alde batetik Udaletxera doaien sarrera posadatik aparte ideki da eta Udaletxea bera haunditu egin da sabaiari toki gehiago hartuz. Posada berean dena aldatuko da: sukaldea, ostatua eta jatetxea. Lanak bere martxa segituz bero, martxoaren 20an idekitzea espero da.



**1990eko ihauterietako argazkia, Iriarteko-Bordan ateraia**

### Garraio-karneta

Nazio eta nazioarteko merkantzien garraio-karneta ateratzeko deialdia ideki da: datorren maiatzean Iruñean izanen da. Karneta hori atera ahal izateko ikastaroak ematen dira eta horietako baten berri Palazioan ematen da: astelehenetik ortzegunetara Donezteben izanen da eta nahi izanez gero lehenbaitlehen izena eman behar da, plazak mugatuak direlakoz.

### Siziliar Ezteiak ihauterietan

Aurtengo ihauterien gaia "Siziliar ezteia" izan da. Han ziren ezkongaiak, apezak, musikariak, eta nola ez, gonbidatutako mafiosoak ere, beren metralleta eta guztiekin, mendiko bordetan barna xaltsa pittat paratzen. Bertzalde, Herriko Etxea eta Armua hertsiak daudenez, bazkari eta afariak egiteko soziedadean eta Azketan moldatu behar izan dira.

## BELATE

### Tuneleko lanetan uste baino 1.000 milioi pezeta gehiago gastatu dira

TTIPI-TTAPA

Urtarrileko azken astean akitu ziren, teknikoki, Belateko tunelaren lanak. Guztira ia 3.880 milioi pezeta gastatu dira, adjudikazioaren aurrekontua baino 1.000 milioi gehiago, hain zuzen ere (lanak 2.872'72 milioitan egin behar zuten Lain, Auxini eta Potasas de Subiza enpresek.

Hasierako proiektuan egin behar izan diren lau aldaketek, gainera, lanak urte terdiz gibeleratzea suposatu du. Nafarroako Gobernuak, ordea, ez die inolako multarik ezarriko lanak egin dituzten enpresei, egindako moldaketak onartu baitzituen.

Jose Ignacio Palacios, Herrilan, Garraio eta Komunikabidetarako kontseilariak adierazi duenez, 1993ko uztailean hasitako lanak *"uste baino zailagoak izan dira, alde batetik urixuriak izan direlakoz eta bertzetik, lurra zulatzerakoan, sondeoetan agertzen ez ziren materialeak, arbela eta horrelakoak, azaldu direlakoz"*.

Dagoeneko Belate eta Almandozko tunelak, alde batetik bertzera ibilgailuan pasatzeko moduan daude. Halere, irailean zabalduko zaie trafikoari, lan osagarriak (argiak, aireztapena...) akitzen direnean.

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
Zaldubia Poligonoa • ✆ 580562
IRURITA - BAZTAN
Sukalde eta Bainu Mobleak
Egoki-ren banatzaile baimendua
EGOKI
SUKALDERAKO MUEBLEAK

GAS KAITZ
fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Telefono mugikorra: 989. 706614
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

## SARA

# Trinketaren beheraldeko bidegurutzearen lanak 800.000 libera gosta dira

Larunbat honetarako kantaldia antolatu du Urtxintxak eskubaloi taldeak

JACQUELINE ETA MIXEL

Trinketaren beheraldeko bidegurutzearen itxura aldatzen ari da. Orain arte egin diren lanak 800.000 libera gosta dira eta Kontseilu Orokorrak bere gain hartzen ditu. Hau da hortik egin beharra den bazterbidearen hasiera eta ondoko lanak ez dira aurtengo eginbeharretan sartzen. Itxura guzien arabera heldu den urterako utziak izan dira.

### Kantaldia larunbat huntan

Sarako Urtxintxak esku baloi taldeak kantaldia antolatu du larunbat honetan, otsailak 15. Arratseko 7,30etan hasiko da Ezpeletako txarangarekin eta 9etan Erramun Martikorena entzuten ahalko dugu. Ondotik erromeria eta talo jatea izanen da. Hau dena Omordian iraganen da.




**Presoen aldeko argibide gaua Gaztetxean**

Urtarrilaren 31n Presoak Euskal Herrirat lemaren inguruan apailatu gauan jende poliki bildu da. Arratsa bideo eta preso ohi eta hauen ahaideen lekukotasunarekin iragan da. Erran behar da presoen aldeko kanpaina urte huntan burutzen ari dela, baina herri ainitzek mozioneak bozkatuta ere ondoriorik ez da agertzen. Inolako erantzunik edo aldaketarik ez da mementoan.

### Pala antxa lehiaketa

Pleka trinketean hasi berria da pala antxa lehiaketa eta 65 bikotek parte hartzen dute. Hoberenetan 7 bikote, bigarren mailan 26 eta maila apalenean 32 ari dira. Orain kanporaketen garaia da eta 140 partida jokatzekoak dira.

### Gaztetxea arnas berritua

Aurten Sarako Gaztetxeak arnas berri bat hartu du, erran nahi baita gazte berri ainitz sartu dela Gaztetxeari bizi berri bat emaiteko asmoarekin. Bizi berri hori hainbat sailetan senditzen da, euskararen irakaskuntzan batipat. Haiek eginiko eskaerari erantzuteko, otsailetik aitzin gazte talde bat bilduko da euskararen ikasteko. Beraien asmoa ez da horretara mugatzen eta *"pentsa genezake herri huntan helduei buruzko euskararen erakaskuntzari eskaintza zabalago bat egitea konbenigarria litzatekela"*.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ Salmentak
• BERA:
- Moldatu beharreko etxea, bere lur eremuarekin.
- Lur eremu industriala
- 3.000 m²ko lur eremua, famili bakarreko etxebizitza egiteko egokia.
• IGANTZI:
- Etxea lur eremuarekin. Estreinatu gabea. AUKERAKOA.
• ARANTZA:
- 3.200 m²ko lur eremua, herriaren ondo-ondoan. AUKERAKOA.
• ORONOZ-MUGAIRI:
- Pisu bikaina, sukalde ekipatua, 3 logela eta egongela. AUKERAKOA.
BORTZIRIETAN etxeak, baserriak, bordak edo eraikitzeko lurrak erosiko nituzke
Errentan emateko pisuak, etxeak, baserriak eta lur eremuak BEHAR DITUGU.
SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak freskagarriak
Santiago 56 • ELIZONDO
✆ 453266 (etxekoa) ✆ 452473 (bodega)

ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU
FOTO MENA
KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO
IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

ERTZILLA
ALBAITARITZA KONTSULTA
Txakur eta katuendako
ORDUTEGIA
10etatik 1etara eta 4etatik 8etara
Larunbatetan 10etatik 1etara
Santiago 30, ✆ 580627
Larrialdiak: ✆ 580762
ELIZONDO

## EZKONTZAK

**Patxi Etxeberria** eta **Mª Paz Alonso**, Doneztebe eta Oiartzungoa, abenduaren 21ean.
**Juan Javier Santamaria Valcarlos** eta **Mª Mercedes Mitxelena Agesta**, Iruña eta Arantzakoa, urtarrilaren 25ean.

## JAIOTZAK

**Marcos Azkarate Elizondo**, Doneztebekoa, urtarrilaren 21ean.
**Nadir Lusarreta Barea**, Elizondokoa, urtarrilaren 8an.
**Anne Jaen Perez**, Elizondokoa, urtarrilaren 16an.
**Battit Vidal**, Sarakoa, urtarrilaren 21ean.
**Frederic Berhau**, Sarakoa, urtarrilaren 29an.
**Nahia Mitxelena Bakero**, Lesakakoa, urtarrilaren 17an.
**Iñigo Arretxea Garate**, Lesakakoa, urtarrilaren 22an.
**Maider Fagoaga Eugi**, Berakoa, urtarrilaren 15ean.
**Joseba Bidaurre Elizondo**, Berakoa, urtarrilaren 21ean.
**Andoni Rodriguez Bereau**, Berakoa, urtarrilaren 24ean.
**Itxaro Zabaleta Telleria**, Leitzakoa, urtarrilaren 19an.
**Uxue Zabaleta Sudupe**, Leitzakoa, otsailaren 2an.


Gure opari berezia
jaio berriendako



IRUÑEKO KUTXA


## HERIOTZAK

**Jesus Loiarte Loiarte**, Goizuetakoa, urtarrilaren 30ean, 28 urte.
**Juana Vicenta Arriada Ilzauspe**, Arizkungoa, urtarrilaren 21ean, 90 urte.
**Elisa Alcocer Cortes**, Elizondokoa, urtarrilaren 24ean, 80 urte.
**Isidoro Astiz Martinaundiarena**, Almandozkoa, urtarrilaren 31n, 61 urte.
**Juan Meliton Lastiri Etxeberria**, Arizkungoa, otsailaren 1ean, 73 urte.
**Bernarda Jauregi Juanena**, Berroetakoa, urtarrilaren 31n, 86 urte.
**Ignacia Osinaga Andueza**, Elizondon, otsailaren 3an, 79 urte.
**Francisco Bertiz Galañena**, Lekarozkoa, otsailaren 2an, 74 urte.
**Luixa Beoteguy**, Sarakoa, urtarrilaren 28an, 78 urte.
**Mª Teresa Tapia Abel**, Lesakakoa, urtarrilaren 23an, 88 urte.
**Luis Lasa Inziarte**, Berakoa, urtarrilaren 28an, 66 urte.
**Maria Zubitur Sarasua**, Leitzakoa, urtarrilaren 24an, 90 urte.


Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA
MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

ALDABE
TAXIA
DONEZTEBE
✆ 450687

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ZUBIRIA
MINDEGIAK
• Etxeak apaintzeko landareak
• Baso landareak
• Bertako frutondoak
ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA
Asteartetik ortzirala 8etatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalik.
✆ 45 21 21 • LEKAROZ



Labiaga ikastolako gaztetxoak kantari, duela bi urteko txapelketan.

# *Nafarroako Haur Kantarien Txapelketa martxoan izanen da*

## Otsailaren 20a da izena emateko azken eguna

«Nafarroako Haur Kantari Txapelketa. 1997» heldu den hilabetean ospatuko da. Txapelketa honen helburu nagusia euskal kantagintza zabaldu eta haurren kantu-zaletasuna haunditzea da eta Nafarroako Kantuzaleen Elkarteak antolatzen du, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Iruñeko Gaiarre antzokian Martxoaren 23an izanen den finalaren aitzinetik, hiru kanporaketa pasa beharko dituzte partehartzaileek. Doneztebeko Bordatxon izanen da txapelketa idekiko duen emanaldia, martxoaren 1ean. Bertze bi kanporaketak Burlatan eta Lizarran ospatuko dira. Eskolaurreko haurrek ez ezik, edozein eskola-ikastoletako LH eta DBHko ikasleak ere apuntu daitezke txapelketa honetan, banaka, binaka nahiz taldeka (beti ere 15 baino guttiagokoak). Kantutegiari dagokionean, herritar eran abestea eskatuko dute antolatzaileek, baina hortik goiti kanta berriak edo zaharrak bereixtea partehartzaileen esku dago. Epaimahaikideek, Amaia Zubiria, Mikel Markez eta Koldo Pastor, kontutan hartuko dituzten erizpideak jakinarazi nahi izan dituzte, hala ere: doinua, hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa, kantaren originaltasuna...baina kantua baloratuko da gauza guzien gainetik. Kantari bakotxak kanta bakarra aurkez dezake eta ikastetxe bereko 4 ordezkari baino gehiago ez dira onartuko. Partehartzaileak bi taldetan banatzea erabaki dute antolatzaileek, ttikien taldea, 7 urtetik 11ra, eta gaztetxoena, 12tik 15era. Izena emateko epea zabalik egonen da otsailaren 20ra arte, eta 228232 telefonora deitu beharko da. Partehartzaileek abestien hitzak eta partiturak bidali beharko dituzte faxez edo postaz honako helbidera: Kantuzaleen Elkartea, Descalzos kalea 50, 31001, Iruñea.

# Bidasoako Ikerketa Zentrua sortu berri da

## Bertako historia, geografia, soziologia eta antropologiaren iragana eta oraina ikertzea izanen da elkartearen helburu nagusia

Otsailaren 7an Bertizko Jauregian emandako prentsaurrekoan aurkeztu zen ofizialki *Bidasoa Ikerketa Zentrua* elkarte kulturala. Ikerketa eta dibulgazioen bidez, Baztan-Bidasoa eskualdeko historia, geografia, soziologia eta antropologiaren iragana eta oraina bultzatu eta jakitera ematea da elkartearen asmoa. Elkarte honen sorreran parte hartu dutenak, lehendik ere aski ezagunak dira, giza-zientzien munduan egin dituzten saiakerak direla eta, batez ere gure eskualdeko gaietan. *Bidasoako Ikerketa Zentrua*ren lehendakari Fernando Mikelarena, Zaragozako Unibertsitatean Historia irakasle lanetan aritzen den beratarra hautatu dute. Lehendakariordea, Juan Ignazio Paul izanen da eta Izaskun Abrilek eginen ditu idazkari lanak. Gainerakoan, Andoni Esparzak (diruzaina) eta Patxi Larretxeak (batzordekideak) osatzen dute elkartea.

Aurtengo urteari begira, IRAUN izeneko jardunaldiak antolatuko dituzte B.I.Z.koek, denboraren joanean eskualdeko bizitzaren funtzionamenduaren giltzarri izan den instituzio baten inguruan: baserria. Horretarako, gaian adituak diren zenbait ikerlariren solasaldiak eta mahai-inguruak (bortz guztira) prestatu dituzte iraila alderako, hala nola gai berdinari buruzko erakusketa egitea ere aurrikusi dute.



**Fernando MIKELARENA**

**Iazko udaberrian «Demografia eta Familia Nafarroa Tradizionalean» izeneko liburua argitaratu zuen Fernandok, eta bertze zenbait ikerketa lanen egilea dugu.**

ttipi-ttapa
TTIPI TXARTELA
**Saltzaileak behar ditugu**
TTIPI TXARTELA saltzeko. Baldintza ekonomiko interesgarriak. Interesatuak euskalduna izan behar du eta bere kontura lan egiteko kapazidadea. Deitu...
✆ 631188

# Julian Retegi eratsundarrak bere hogeigarren txapela bururatu du

■ Oskar Lasa atzelariarekin eskuz binakakoa irabazi zuen otsailaren 2an

■ Antton Maiz aranztarraren errekorra berdindu du bortz txapelekin

Maixua beti maixu. Hori izan daiteke otsailaren 2an Donostiako Atano III pilotalekuan gertatu zena laburbiltzeko esaldia. Julian Retegik Oskar Lasaren laguntza izan zuen Patxi Eugi eta Jose Mari Zezeagari 22-14 irabazteko. Modu honetan, eratsundarrak eskuz binakako bosgarren txapela bururatu –Antton Maiz aranztarraren errekorra berdinduz– eta bere hogeigarren txapela jaso zuen –bigarren mailako eskuz banakoa 1975ean, lehen mailakoa hameka aldiz, lau terdiaren barnean bertze hiru eta eskuz binakako bortzak–, seguraski inork sekulan hobetuko ez duen marka ezarriz. Retegik oraindik edozeini aurre egiteko gai dela erakutsi zuen, 42 urte beteak izan arren. *"Adin honekin arras titulu inportantea da neretzat, horregatik, norbaiti eskaini beharrean neretzako gordeko dut"* adierazi zuen finala akitu bezain laister. Eraberean, eskuz banakako txapelketan ez duela parte hartuko eta udaran aritzeko prestatuko dela erran zuen.



Lasa III eta Retegi II, eskuz binakako txapeldunak Argazkia:D.Noticias

### ☞ Julian RETEGI



*Antton Maizen marka berdintzea anekdota besterik ez da. Inportantea da, baina inportanteena finala irabaztea eta oraindik hor gaudela erakustea zen. Txapela, lehenik finalera ailegatu garelako eta gero Zezeagari pilota baztertu diogulako irabazi dugu. Eugi ongi ibili da, arras zentratua eta urduritasunik gabe. Bigarren zatian gehiago sartu da jokoan. Zezeagak ez du partidu konpletoa jokatu, baina ez da gaizki aritu. Oso fuerte hasi da, baina pixkan-pixkan pilota baztertu diogu. Lasari dagokionez, ongi aritu da. Atzelari guttiagorekin jokatzen ohituta nago, baina lagun ona jarri didatenean tituluak eskuratu ditut. Ezin dut esan berrogeitabi urterekin lehen baino gehiago edo gutxiago jokatzen dudan, garai ezberdinak dira eta, zorionez, gehienetan hor tartean nabil. Etorkizunari begira, mutiko koxkorrekin lanean aritzea gustatuko litzaidake, postura okerrak zuzenduz eta ahalik eta estilo onena har dezaten dakidana erakutsiz.*




## Berako mendi bizikleta ibilaldiaren zortzigarren edizioa igande honetan burutuko da

Igande honetan, otsailak 16, goizeko 10etatik aitzinera burutuko da Gure Txokoa elkarteak, Berako udalaren eta Nafarroako Gobernuaren Laguntzaz, zortzigarren urtez antolatutako mendi bizikleta ibilaldia. Izen ematea Gure Txokoaren egoitzan gauzatu daiteke, goizeko 8etatik 9,30etara. Horretarako, 14 eta 16 urte artekoek 500 pezeta eta 16tik goitikoek 1.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Urtero bezala, partehartzaileek bi ibilbide izanen dituzte aukeran, bata 18 kilometrokoa (Usategietatik herrira jautsiz) eta 28 kilometrokoa bertzea (Usategietatik, Landagaita, Kondendiaga, Lizuniaga, tiro zelaia, Idoia eta Ardanbiden barna pasatu ondotik herriratuko dena).

Ondotik, kirol materialen zozketa egin eta bazkalaurrekoa banatuko da.

DATUAK..........

❶ Iñaki Otxandorena orain 19 urte sortu zen Oronozen.

❷ Zortzi urte zituenetik ari da pilotan, beti Txaruta elkartearekin.

❸ Momentu honetan, Euskal Liga eta Mungiako txapelketa jokatzen ari da.

❹ Mikel Goñi oronoztarrarekin batera jubenil mailan DV txapelketa eta bakarka Burlatakoa dira irabazi dituen saririk inportanteenak.

❺ Orain bi urte, jubenil mailan Txarutarekin Nafarroako Herriarteko txapelketaren finalera ailegatzeak ere ilusio berezia egin zion.

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIA: JOSU INZIARTE

**Iñaki OTXANDORENA** *Oronozko pilotaria*

# "San Francisco aldean pilota partidu pare bat jokatuko ditugu"

Euskadiko Federazioaren eskutik, Estatu Batuetan erakustaldi partidu batzuk jokatzera joan behar da laister Otxandorena. Otsailaren 13an abiatu eta 21ean itzultzekoa da. *"Lau pilotari joan behar dugu San Francisco aldera eta, badaezpada, norbait lesionatzen bada edo, ordezkoa. Orain bi urte, Apeztegia joan zenean, hiru-lau partidu jokatu zituzten, baina aurten bi bertzerik ez omen ditugu jokatuko. Bertako Euskal Etxean hartuko dugu ostatu"*.

Momentuan Txarutaldearekin Euskal Ligan ari da eta Mungiako txapelketan ere parte hartzen ari da. Joku maila politean ari da oronoztarra eta hori erakusten saiatuko da EEBBtako txangoan. *"Urriroa arte ongi aritu naiz, baina gero, uso ehizi denboraldiarekin eta, badakizu... Orain berriz ongi nago"*.



«San Franciscora goazenok Euskal Etxean hartuko dugu ostatu»

### «Profesionaletan aritzeko aunitz ikasi behar dut»

Mikel Goñi herritarrak iaz egin zuen debuta profesionaletan eta bide hori segitu nahiko luke atzelari honek ere. *"Afizionatutan ari garen denok goitira pasatzeko asmo hori izaten dugu, baina profesionaletan aritzeko aunitz ikasi beharra dut"*. Bere jokuan erreparatu dutenek diotenez, eskuin kolpea da ezaugarririk nabarmenena. *"Txispa haundia dudala erraten dute, baina ezkerrarekin hobetu behar dut. Bertze aldetik ratxa on eta txar aunitz izaten ditut eta erregulartasuna mantentzen saiatu behar dut"*. Beti bezala, profesionaletan izan ohi dira irakaslerik onenak eta Otxandorenak ere baditu bereak. *"Momentu honetan Belokirekin harritua gelditzen naiz, pilotari jotzeko zer errextasuna duen. Elkoro ere gustatzen zait, salto haundia egin du, eta aurrean, betidanik, Retegi izan da nere gustokoa"*.

Aukeran utziz gero, aurrelaria *"tantoa akitzen duena"* gustatzen zaio Iñakiri *"atzelari guztioi bezalaxe"*. Afizionatutan maila haundiko atzelarien kontra jokatzen hasia da eta, gehien bat, erritmo aldaketaz ohartu da. *"Erritmo haundian jokatu eta horiek ez dute pilotarik galtzen. Guk berriz, erritmo berean pilota gehiago galtzen ditugu. Beti lauean paratzen dute pilota eta ez diote zure aurrelariari sartzen uzten"*. ■

*"Afizionatutan ari garen denok goitira pasatzeko asmoa izaten dugu, baina profesionaletan aritzeko aunitz ikasi beharra dut, batez ere ezkerrez eta erregulartasuna mantentzen."*

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Otsailaren 21ean**
Gaueko 10,30etan Kasinoan 'Sanchis y Jocano' taldearen kontzertua.

### ETXALAR

**Otsailaren 15ean**
Gaueko 10etan Herriko Ostatuan 'Jeremiah Johnson' taldeak 'Goes to the Planetarium' diska aurkeztuko du.

### SARA

**Otsailaren 15ean**
atsaldeko 7,30etan Ezpeleta txaranga eta 9etan Erramun Martikorena.

### ERRATZU

**Martxoaren 1ean**
Gaueko 11etan Exkixu, Otsondo 602, Ttakun eta Bizkar Hezurra.

### LESAKA

**Otsailaren 21ean**
gaueko 11etan, Arranon, Niko Etxart eta bere aita.

## ERAKUSKETAK

### BERTIZ

**Aste Saindua arte**
Bidasoako Trenari buruzko erakusketa burutuko da Bertizko Jauregian. Asteburuetan bakarrik egonen da irekia.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.400 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 170 pta/kilo
- **Zerramak:** 125-130 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 510 |
| 1.koa | 490 |
| 2.koa | 470 |

- **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 530 |
| 1.koa | 510 |
| 2.koa | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 26.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 34.000 Pta.
**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 330 Pzta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE**

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### *Jubilatuentzako Arkupeak-en bazkariak*

Hilabete honen bukaera aldera eginen dira Arkupeak jubilatuen elkarteak antolatu dituen bazkariak. Hainbat herritan izanen dira bazkari hauek, Donezteben (14ean), Labaienen (16an), Oronozen (22an), Leitzan eta Sunbillan(23an)... Doneztebe, Oitz, Urrotz, Donamaria eta Gaztelukoentzat Donezteben izanen da zita, otsailaren 14ean. Goizeko 11tan meza emanen da elizan, eta gero bazkariaren txanda etorriko da, 1,30ak aldera. Eguna ongi akautzeko dantzaldia prestatu dute, arratsaldeko 7,30ak arte iraunen duena. Apuntu nahi duenak 2.500 pezeta ordaindu beharko du Arkupeak-eko bazkide bada, eta 3.000 bertzela. Bertzalde, Egiptora bidaian interesatua dagoenak hilaren 15ean 450144 telefonora deitu beharko du izen-emateko: 11tatik 12tara bazkideek eta 12tatik 12,30etara bazkide ez direnek.



Hilabete hondarrerako hainbat bazkari prestatu ditu Arkupeak elkarteak eskualdeko jubilatuendako

## LIBURUAK




«Letrak kalekantoitik»
Anjel LERTTXUNDI
Alberdania

Ez da errexa liburu hau sailkatzea. Jeneroen hesietatik kanpo, aparteko emaitza da liburua: esapideen jatorriak, azalpen filologikoak, hitz, kantu eta bertsoen inguruko pasadizoak, letren inguruko istorioak... Horixe duzu liburua, hitzen barneko abentura. Eta horretarako lana egin behar da liburu, bertso-bilduma, hiztegi eta ahozko ondarean arakatzen; baina horren guztiaren gainetik jakinmina behar da. Hizkuntza maitatu behar da, bereziki hizkuntzaren jantzien azpian gorderik dagoena. Ez dezala pentsa inork, ordea, filologia lan irakurgaitza denik. Etimolnogikoki, literatura letren inguruko jarduna bada, liburu hau literatura da.

(Argiatik bildua)

KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK




# *Etxetik mugitu gabe erosteak baditu bere arriskuak*

Gero eta gehiago dira etxetik mugitu gabe produktu ezberdinak erosteko aukera ematen diguten eskaintzak: telebistatik, katalogoen bidez... Baina etxean paketea irekitzen dutenean pertsona aunitzek ez dute gustoko produktua topatzen. Batzutan ez da irudien bidez 'saldu' zioten gauza bera; bertzeetan, erosketarekin batera etorri behar zen 'oparia' bukatu da edo, kasurik okerrenean, eskatutako produktua ez da iristen. Egoera hauek ez gertatzeko zenbait gomendio segitu behar dira:

- Produktua erosterakoan, iragarkia ere gorde. Aldizkarien kasuan zatia moztu eta telebistaren kasuan bideoan grabatu. Iragarki horrek kontratu gisa balio du erreklamazio egiterako orduan, iragarritakoa eta egitan bidalitakoa berdinak diren ikusteko.
- Erosleak produktua itzultzeko eskubidea dauka, normalean jaso duenetik zazpi egunen barnean. Itzulketa ailegatzen dela segurtatzeko, korreo zertifikatuaren bidez egitea komeni da.
- Ordainketa produktua jasotzean egin behar da (errenboltso bidez) eta ez eskudirutan. Fakturak eskatu eta ongi gorde, produktuaren garantia bukatu arte, .
- Erosketarekin batera eskaintzen duten oparia bukatu bada, kontsumitzaileak bere balio bera edo haundiagoa duen bertze bat eskuratzeko eskubidea dauka.
- Posta kutxatil baten helbidea bertzerik ez duten enpresei hobe da deus ez erostea.

### PAKETEA POSTA BULEGOAN ZABALDU

Paketea errenboltso bidez jasotzen denean, erosleak Posta bulegoan irekitzeko eskubidea dauka. Berak eskatu duena ez bada, itzultzeko aukera izanen du, produktua eta posta gastuak ordaindu gabe. Etxean ireki eta itzuli nahiz izanez gero, berriz, norberak ordaindu beharko lituzke itzulketa gastuak.

IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

## ☞ DISKAK




«ZU»
ZUP

Azken urteetan kontzertu dexentetan aditu ahal izan baditugu ere, hau da talde beratarrak grabatu duen lehenbiziko lana. ZUP berri honetako partaideak, Joseba (kitarra), Maikel (bateria), Petti (ahotsa) eta Iñigo (baxua) ditugu. Joseba eta Maikel hasierako ZUPetik datozi, baino Iñigo eta Petti geroago sartu ziren taldean. Indar haundiko lau abestik osatzen dute maketa, hoietako batek izena ematen diolarik, «ZU». «Ergelak», «Zergatik» eta «Ilusioa» dira maketa osatzen duten bertze hiru kantak. Grabazioa Beran bertan egin dute beren kontura. Kontaktuetarako telefono pare bat: 630317 (Joseba) eta 630436 (Iñigo).

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ZINEA

### DONEZTEBE

- **Otsailaren 15 eta 16an** 'El primer caballero'.
- **Otsailaren 22 eta 23an** 'Libertarias'.

### LEITZA

- **Otsailaren 14-16an** 'Secretos y mentiras' eta 'Aladdin y el rey de los ladrones'.
- **Otsailaren 23an** 'En el nombre del hijo' eta 'Independence day

### BERA

- **Otsailaren 16an** 'Caravana al Este'.
- **Otsailaren 23an** 'Trainspotting'.

## MENDI IRTEERAK

### BAZTAN

- **Otsailaren 16an** Baztango Mendigoizaleek, Iratin elur-trabesia eginen dute.
- **Otsailaren 23an** Ubon errekara joanen dira Baztango Mendigoizaleak. Ibilbidea: Belate-Ubon-Mugairi

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

- **Otsailaren 10tik 16ra** Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.
- **Otsailaren 17tik 23ra** Bera, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.
- **Otsailaren 24tik martxoaren 2ra** Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Salerosketak
602. Emateko
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...** *Hegoaldetik deitzeko 948-* *Iparraldetik 00-34-48* **631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**DONAMARIA.** Baserria salgai. Sotoa, lehen solairua (etxebizitza) eta ganbara. Borda ttiki bat badu berari itxekia eta larraina atarian. 150m². Bengoetxeako borda. ☎ 510540.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**Borda** edo etxeren bat erosiko nuke. ☎ 306502 arratsetan.

**BERA.** Boardilla edo pisu bat erosiko nuke. ☎ 929-443765.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**Arantzan edo Lesakan** borda edo etxe bat errentan hartuko nuke. Merke xamar edo zerbait moldatzeko hobe. ☎ 909-477277 Imanol.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**BERA.** 60 m²ko garajea salgai Burga plazan. Ura eta argiarekin. ☎ 631137 eta 630941.

**LESAKA.** Garaje plaza errentan emanen nuke, Albistur 64an. ☎ 637820.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALDU

**SUNBILLA.** 20.000m²ko lur-saila salgai. Metroa 20 durotan. ☎ 580228.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

**Teilatu konponketak** egiten ditugu. ☎ 452105 (gaueko 9etatik aurrera, Isidro).

ARANTZA ZURGINDEGIA
*Jose Miguel Errandonea*
Klase guztietako zurgin lanak
Osiña auzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA

# URTEBETETZEAK

**Sail hau dohanekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Iker Sein Etxeberria** igantziarrak otsailaren 15ean beteko ditu 5 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



**Jon Gago Lukanbio** sunbildarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak Arantzako familiaren (berexiki Lidiaren) partez.



**Miren Agirre Azpiroz** leitzarrak otsailaren 11an ospatuko du bere urtebetetzea. Zorionak zure familia osoaren partez. Muxu bat.



**Maddi Del Campo Etxeberria**k lau urte beteko ditu otsailaren 26an. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partez.



**Aitzpea Huizi Manterola** goizutarrak 3 urte bete ditu otsailaren 6an. Zorionak famili guziaren partez. Muxu bat.



**Maider Olazaregi Urkiola** beratarrak urtea beteko du otsailaren 9an. Zorionak zaintzen zaituen familiaren partez.



**Ainhoa Almandoz Elizalde** beratarrak 22 urte bete ditu urtarrilaren 25ean. Zorionak, «berritsu» koadrilaren partez.



**Bidatz Irurueta Etxeberria** doneztebarrak 6 urte egin ditu otsailaren 14ean. Zorionak, Alazne eta familia guziaren partez.



**Jabier Apeztegia Iturria**k otsailaren 2an urtea egin du. Zorionak Naiara, guraso eta amatxiren partez.



**Mª Jose Sanz Goia** beratarrak 28 urte bete ditu otsailaren 22an. Bere familia eta Jose Mariren partetik zorionak.



**Dani Altzuguren** beratarrak 14 beteko ditu otsailaren 15ean. Zorionak Ibardingo lagunen partetik.



**Begoña Muñoz** irundarrak 28 urte beteko ditu otsailaren 19an. Zorionak Ibardingo lagunen partetik.



**Jabier Arburua** igantziarrak 23 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak familiaren partez.



**Juan Mari Arburua** igantziarrak 27 urte bete ditu otsailaren 13an. Zorionak Miren eta bere familiaren partez.



**Nagore Aldabe Portu** oieregitarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak zure familiaren partez.



**Pello Bazterrika** iturendarrak otsailaren 25ean 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu aunitz familiaren partez.



**Caridad Perez Diaz** beratarrak otsailaren 10ean bete ditu urteak. Zorionak zure seme-alaben partez. Urte askotarako.



**Paco Torres Coronado** beratarrak urteak bete ditu otsailaren 10ean. Zure seme-alaben partez zorionak. Urte askotarako.



**Nemesia Iriarte Huarte** beratarrak otsailaren 26an urteak beteko ditu. Zorionak Oier eta Hegoaren partez.



**Naiara Riopedre Huizi** beratarrak 12 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez.

## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK

*Mª Dolores Miñana*
**TOPOGRAFOA**
**NEURKETA • PLANOAK**
*Lur neurketak, Luberriak Plantazioak, etab...*

☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. **ELIZONDO**

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Lada Niva** saltzen da. ☎ 451766-451841

**Opel Kadett** 2.0 GSI salgai. Egoera oso onean. ☎ 627521.

**MENDAUR MOTOR**
✆ 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Renault Super-5, Suzuki Vitara labur eta luzeak, Land Rover arina, Corsa Diesel eta Ford Fiesta.

**Nissan** markako kamioia 90 zaldikoa. Bolketea eta tarjeta badu. ☎ 637210 arratseko 8etatik aitzinera.

NISSAN **BERABI tailerrak**
✆ 631445 • BERA
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Patrol Top-Line
Nissan Patrol, NA-P
Nissan Vanette Diesel (aukeran)
Citroen BX TRD ABS haize egokituarekin, SS-AC

**Citroen Visa** NA-L salgai, egoera onean. 75.000 Pta.. ☎ 451577.

Audi **SAMPI ARAGON**
**Bigarren eskuko autoak, erosten ditugu**
**Salgai:** Golf TD, Nissan Suny, Peugeot 106,
✆ 45 03 54 • DONEZTEBE

## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

**Ardi txakurkumeak** salgai. ☎ 604624 (gaueko 8ak aldera).

**Bi zerri gazte** salgai, ehun bat kilokoa bakoitza. ☎ 634166 (arratsaldez).

**15 ardiren** kupoa salgai. ☎ 615124.

Bi urte terdiko **monturako zaldia** salgai. Hezituta. ☎ 637107 (eguerdiko 12etatik 3etara). Lesaka.

**Husky siberiar** arrazako zakurra salgai. ☎ 630461.

**Boxer** arrazako xakurkumeak salgai. ☎ 631218.

**2 hilabeteko ardi-txakurkumeak** salgai. 1000 pezeta bakotxak ☎ 0559542354

## ANIMALIAK

### 604 KLINIKAK

**ALBAITERITZA KLINIKA**
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
✆ 627660 LESAKA


## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

**Txal bat** galdu da Lesakan, Bittiria karrikan. ☎ 637859.

**Emakume erloju** bat (Pulser Quartz) aurkitu dut Berako Herriko Etxeko plazan, San Anton egunean. ☎ 631476 (Begoña).

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**«Do-re-mi» pianoa salgai,** ahoarekin jotzekoa. Bazkaltzeko tenorean eta arratsetan 10ak arte, deitu 637304 telefonora.

**Gasoil-depositoa** salgai. 500 litrokoa. 15.000 Pta.. ☎ 637317 Gauetan.

**Grundig** telebista 25"koa salgai. Kate frantzesekin. ☎ 637217.

**Egurrezko kaldera** haundia salgai. ☎ 637127.

**Haritz amerikano** landareak salgai. ☎ 450771 (arratsaldeko 6,30etatik aitzinera).

**Txatarra**, moble zaharrak eta artilea erosten dugu. Etxez etxe eta eskura ordainduz. ☎ 989.042849.

**Segamakina** Rapid eta belarra goitzeko motorra, bere tuboarekin, salgai. Ongi daude ☎ 615046.

# ADOS

## INMOBILIARIA AGENTZIA

*Julian Izura Nuin*

**BERA.**
- 104 m²ko pisua salgai
- Etxe zoragarria salgai.
- Pisu batzuk errentan emateko.
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.
- *'Eguzki'* kafetegia salgai, gaineko etxebizitzarekin
- Pisua salgai.
- Ostatua salgai.
- Lur eremuak salgai.
- 30 m²ko bajera errentan emateko.
- Pisua erosi nahi da.

**URROTZ.**
-Baserria errentan emateko.

**LESAKA.**
- 60 m²ko bajera salgai. Arras prestatua.
- Etxe elkar-atxikiak salgai. Familia bakarrekoak.

**ETXALAR.**
- Etxeak egiteko lur eremua salgai.

**IRURITA.**
- 140 m²ko etxea salgai.
- 350 m²ko etxea salgai.

**ELIZONDO.**
- Pisu merkea salgai.
- Pisu berria salgai (Braulio Iriarte karrikan).
- 400 m²ko bajera bat eta bertze batzuk salgai.
- Etxeak egiteko lur eremua salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

**ORONOZ-MUGAIRI.**
- Nabe-pabilioiak salgai.
- Kanpoaldeko pisua salgai. Arras ongi dago.
- Pisu bat errentan eman nahi da. Ongi dago.
- Oskorri liburudenda salgai.

**LEGASA.**
- Pisua salgai.

**NARBARTE.**
- Pisu haundi bat errentan emateko prest.
- Pisu erabilia salgai. Arras merkea.
- Pisua berria salgai.

**DONAMARIA (IGURIN).**
- Txaleta salgai.

**DONEZTEBE.**
- Pisu batzuk errentan emateko prest.

**ELGORRIAGA.**
- Pisu eder eta berria salgai, garajearekin.
- Familia batendako etxea errentan edo salgai.

**ITUREN.**
- Etxe eder bat bere lur eremuarekin salgai.
- Lur eremu batzuk saltzen dira.

**ZUBIETA.**
- Azken bi pisu berriak salg

**ERATSUN.**
- Baserria salgai.

**LEITZA**
- Pisuak salgai. Berriak eta e

**Igeltsero, iturgin, elektrizista, zurgin eta pintoreak ditugu zure zerbitzura. Etxe-aldairak ere egiten dira, edozein egunetan.**

**PREMIAZKOAK (EROSTEKO)**
- Bortzirietan baserri edo etxe bat.
- Doneztеben pisua erosi nahiko nuke.
- Bordak nonahi.
- Lur eremu eta baserriak Baztan aldean.

**AUKERAK**
- Oskorri liburudenda
- Legasako pisua 6.000.000 Pta. negoziag.
- Zubietako azken pisuak 8.000.000 Pta.
- Lesakako bajera 7.000.000 Pta.
- Nabe pabiloiak salgai.

**Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere. Badugu abokatua. Deiguzu konpromezurik gabe.**

*Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE*

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Lesakako** Maite B.ri: hagitz lagun maja zara.

**Kuarteto Pokapena** orain haunditu dela. Txipi, Txiliguini, Zarraluki eta Bixentika.

**Leitzako** Josu Z.ri: Erregimena egin behar duzu! A. gela guztiaren partez.

**Lesakako** Garbiñe Perezi: hagitz ona zaude. Zure atzetik dabilen mutil baten partez.

**Orabideako** koadrilako bi mutilei, Jorge eta Josebari. Begiak itxi-ireki batean galdu ditugu gure Etxalarko bi neska polit horiek. Ze eman ote diezue guk eman ez dieguna. Ramontxo eta Juanjo Zugarramurditik.

**Berako** Alicia G.ri. Zorionak zure urtebetetzean, urtarrilak 30an, «M.L.S.C.»klubaren partez.

**Berako** B.E., zorionak zure urtebetetzean, otsailak 4ean, ez hasertu, zuk dakizunen partez

# URTEBETETZEAK

**Sail hau dohanekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Mª Victoria Ibarra Irureta** elgorriagarrak 55 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak familiaren partez.



**Jurdan Cestero Bueno** beratarrak otsailaren 5ean 6 urte bete ditu. Zorionak zure familiaren partez.



**Julen Suarez Antxordoki** lesakarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 17an. Zorionak atta, ama, Josu eta Markelen partez.



**Ekhine Etxeberria Belarra** elizondarrak urtarrilaren 29an 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



**Urko Loiarte Etxekolonea** errenderiarrak 8 urte betetzen ditu otsailaren 13an. Zorionak Txapako familiaren partez.



**Mikel Olazar Bazterrika** elgorriarrak 5 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak gurasoen partetik.



**Olaia Landara?** sunbildarrak 3 urte bete ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak, bere aita eta amaren partez.



**Antonio Irazoki Agesta** beratarrak 28 urte bete ditu urtarrilaren 17an. Zorionak zure lagunen partez.



**Maider Mindegia Eleta** doneztebarrak 9 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxuak, aita-ama eta Nerearen partez.



Berbinzanako **Joana Duque Errandonea**k 15 urte bete ditu urtarrilaren 29an. Zorionak eta muxu bat zure familiaren partez.



**Nagore Irigoien Ibarra** elizondarrak otsailaren 11an 3 urte bete ditu. Zorionak zure guraso, anai eta etxalarko familiaren partez.



**Xuban Eugi Goñi** elizondarrak otsailaren 9an 5 urte bete ditu. Zorionak! Muxu haundi bat etxeko ttikienari familiaren partez.



**Jokin Ramirez Etxandi** gartzaindarrak 26 urte bete ditu urtarrilaren 31an. Zorionak Patxi, Inaxio, Ana eta Ainhoaren partez



**Maite Perurena Eskudero** goizuetarrak 24 urte bete ditu urtarrilaren 11an. Zorionak zure guraso eta ahizpen partetik.



**Maialen Telletxea Zubieta** oiartzuarrak bi urte bete ditu otsailaren 12an. Bere familiaren partetik, zorionak moñoña!



**Iñaki Elizalde Mariezkurrena** doneztebarrak 5 urte betetzen ditu otsailaren 14ean. Zorionak aita-ama eta Aloñaren partez.



**Aloña Elizalde de Mariezkurrena** doneztebarrak 11 urte beteko ditu otsailaren 24ean. Zorionak aita-ama eta Iñakiren partez.



**Egoitz Gorosterrazu Elizagoien** ittundarrak 5 urte bete ditu otsailaren 8an. Zorionak amatxi, iker eta gurasoen partez.



**Iker Gorosterrazu Elizagoien** ittundarrak otsailaren 20ean 7 urte beteko ditu. Zorionak amatxi, Egoitz eta gurasoak.



**Jaione Andueza**k 17 urte bete ditu otsailaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat bi Josunen eta Arantxaren partez.



**Miren Argia Beola**k 15 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak Y.S., J.S., A.A. eta B.I.ren partez. Baita Ana Belenta Idoiaren partez



**Iñigo Altzugarai Legazkue** lesakarrak otsailaren 13an 9 urte betetzen ditu. Zorionak aita, ama eta Alaiaren partez.



**Begoña Jaurena Urrutia** urdazubiarrak otsailaren 18an beteko ditu 20 urte. Zorionak eta muxu haundi bat Koadrilla.



**Miren Oiartzabal** elizondarrak 19 urte bete ditu urtarrilaren 26an. Zorionak eta ea formaltzen zaren pixka bat. Koadrillakoak.



**Miren Sansiñena** urdazubiarrak otsailaren 15ean 21 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat koadrillakoen partez.



**Esther Bertiz Etxegarai** etxalartarrak otsailaren 25ean 65 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez.



**Blanca Satrustegi Altzugarai** lesakarrak 5 urte bete ditu urtarrilaren 23an. Zorionak, guraso eta Ladisen partez.



**Juan Jose Zelaieta** mugairearrak 25 urte bete ditu otsailaren 8an. Zorionak eta segi beti bezain jator. Leitzako lagunak.



**Unai Telletxea Iraola** igantziarrak urtea bete du otsailaren 5ean. Aunitz urtez Eneko, atta eta amaren partez.



**Maitane Zubillaga** olaguetarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 24ean. Zorionak Zugarramurdiko familiaren partez.



**Maite Varela** urdazubitarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak zure familiaren partez.



**Naroa Mendiberri Aldaz** beratarrak 7 urte bete ditu otsailaren 4ean. Zorionak eta muxu haundi bat, hiru familien partez.



**Iker Gonzalez Alzugarai** igantziarrak 3 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak zure anai, guraso eta amatxiren partez.



**Unai Almandoz Alzugarai** igantziarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 19an. Zorionak Lesakako familia eta amatxiren partez.



**Josu Irurueta Zinkunegi** elgorriarrak 6 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak, Andoni, Lide eta Joseluisen partez.



**Arantxa Ayesa** irunberritarrak, 22 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak «M.S.L.C.» klubaren partez. Muxu haundi bat.



**Lourdes Agirre** beratarrak otsailaren 4ean 15 urte bete ditu. Zorionak! Zure familiaren partez.



**Irune Elizondo** urrotztarrak 5 urte betetzen ditu otsailaren 13an. Zorionak bere familiaren partez eta muxu haundi bat.



**Irati Etxeberria Aldabe** hernaniarrak 2 urte beteko ditu otsailak 17an. Zorionak Goizueta eta Doneztebeko familien partez.



**Itsaso Huizi Pradanos** beratarrak otsailaren 20ean 13 urte beteko ditu. Zorionak bere familiaren partez.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Gorka Alduntzin Agirre** leitzarrak otsailaren 15ean ospatuko du bere 18. urtebetetzea. Zorionak zure lehengusu, izeba, amona, eta etxekoen partetik.

**Xabier** eta **Jon Zabaleta Sodupe:** otsailaren 23an 3 urte betetzen dituzte. Leitzatik beren lehengusuek partez, zorionak.




Ongi etorria Passat berrira.

Garai berriak.
Modelo berriak

**25 urte zure zerbitzura**

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea
✆ 450354 / 450759
**DONEZTEBE**



# ORDOKI ALTZARIAK

estilo guzietako mobleak

eskeintza berezia



***Kalitatea prezio egokian***

- ***Modelo-berritzea dugula-eta, prezioak jautsi ditugu***
- ***Logelak***
- ***Egongelak***
- ***Tresilloak, etab...***



- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Pareta-armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, alasa, besaulki, etabarretan aukera zabala
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**




sakako
ARIXUSen,
rate batera,
ektrogailuetan
20ko
SKONTUA
nen duzu eta
tenetan
30ekoa...

# TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu






ta
neztebeko
IOA arropa
ndan, %10eko
SKONTUA.
horrela,
rtze 38
mertzio eta

ESKATU BAT ZURETZAT

✆ 631188

## DESKONTUAK

**AUTO TALLERRAK**
- MENDAUR MOTOR.....Doneztebe
- SANPI ARAGON.....Doneztebe
- PEDRO GARMENDIA.....Elizondo
- DATUCELAY.....Elizondo
- ZALAIN MOTOR.....Bera

**AUTO-ESKOLAK**
- SEMPER.....Lesaka

**ARGAZKI DENDAK**
- GOIKO.....Bera
- AYLA.....Bera
- MENA.....Doneztebe/Elizondo
- ZALDUA.....Doneztebe/Elizondo

**ARROPA DENDAK**
- SAIOA.....Doneztebe
- J.J. PICABEA.....Doneztebe
- TXIRRISTA.....Doneztebe
- PICABEA BOUTIQUE.....Doneztebe
- IPINGI.....Elizondo
- COCOS.....Elizondo
- FANTXIKE.....Elizondo

**ELEKTROGAILU DENDAK**
- MARIXUS.....Lesaka
- RADIO BIDASOA.....Bera

**ESTETIKA ZENTRUAK**
- AMAIA.....Doneztebe
- BEATRIZ.....Elizondo
- MARIAN.....Lesaka

**KIROL DENDAK**
- IPARLA KIROLAK.....Elizondo
- ZELA KIROLAK.....Bera
- AGARA KIROLAK.....Bera
- Mª LUZ SPORT.....Bera

**LENTZERIAK**
- Mª CRUZ.....Doneztebe
- MAITE.....Elizondo
- DEÑE.....Lesaka

**LIBURUDENDAK**
- NAFARPRESS.....Elizondo
- LEGARRA.....Lesaka

**MOBLEDENDAK**
- AMAIUR ALTZARIAK.....Doneztebe

**OPTIKAK**
- OSTARGI.....Bera

**ZAPATADENDAK**
- NEREA.....Doneztebe
- OSTIZ.....Doneztebe

**ZURGINAK**
- ZIMELDI.....Etxalar